


# hariak

2023ko iraila

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin  
lanari hay alternativas begirada konprometituak  
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesarekin egin da, 2019ko proiektuaren esparruan: *Hezkuntza kritikoaren prozesuei laguntzeko hausnarketak, eztabaidak eta proposamenak. Gizarte-eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra*. Halaber, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) laguntzarekin egin da, 2020ko proiektuaren esparruan: *Herritartasun globala birpentsatzea pandemia garaian. Gizarte-eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra*. Testuen edukia Hegoaren erantzukizuna da soilik, eta ez du, halabeharrez, GLEA eta AECID erakundeen iritzia islatzen.

#### Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizábal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

M<sup>a</sup> Luz De la Cal Barreda

Jone Martínez Palacios

Jaume Martínez Bonafé

M<sup>a</sup> Jesús Martínez Usarralde

Gema Celorio Díaz

Amaia del Río Martínez

#### Finantzatzaileak:



#### Argitaratzailea:




**Lege-gordailua:** BI-1805-2016

13.zk., 2023ko iraila

**Diseinua eta Maketazioa:** Marra, S.L.

**Euskerazko itzulpena:** Bakun

**Azaleko argazkia:**

Miguel Vega Ortiz 

Esker on berezia Marina Gallardo Izquierdori zerbaki honetan laguntzeagatik.

UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 · 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 · Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 · 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 · Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 · 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>



# aurkibidea



2

## **editoriala**

Konpromisoak eta ametsak garai gorabeheratsuetan  
*Juanjo Celorio Díaz*

4

## **sakonean**

Hedakuntza Kritikoa eta Latinoamerikako Unibertsitatea: Unibertsitate publikoaren krisiari aurre egiteko gako politiko-akademikoak  
*Eloísa Ibarzabal eta Humberto Tommasino*

12

## **solasean**

Isabel Rauberrekin elkarrizketa. Unibertsitateak funtsezko zeregin bat du: herri-mugimendu sozialen esperientzia kolektiboekin artikulatzea  
*Nicolás Armando Herrera Farfán*

18

## **ekin lanari**

Zer ez egin prestakuntza politikoan? Porroten dekalogo  
*Mateo Vidal León*

Bai bizitzari: Unibertsitate-hedapen emantzipatzailea. Hainbat ikaskuntza Kolonbiako Tolima departamentutik  
*Mar Pulido Vicente*

26

## **begirada konprometituak**

**zinema/dokumentalak** Estado de malestar • Fraguas - Dokumental

**argitalpenak** Extensión crítica en tiempos de pandemia. La coyuntura de los movimientos sociales ante la emergencia • Marta Lamas: dimensiones de la diferencia. Género y política: antología esencial

**erakundeak** Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos • Somos muchas. Por la libertad y vida de las mujeres

**ezinbesteko agenda** Vigilancia ciudadana para el cambio social: herramientas para no morir en el intento • “Energía-komunitate bat eraikiz” jardunaldiak

30

## **matxino artean**

Artea espoliazioaren aurka  
*Arabako SEADen Lagunen Elkartea*

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin  
lanari hay alternativas begirada konprometituak  
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

## Konpromisoak eta ametsak garai gorabeheratsuetan

*Hariak* aldizkariaren ale berri honen editorialak “Konpromisoak eta ametsak garai gorabeheratsuetan” izenburua izan dezake. Badakigu, batzuetan, itsasoa edo itxuraz itzalita dagoen sumendi bat intentsitate handiko korronteez edo laba korronteez zeharkatzen dituztela sakonean, eta ez direla nabaritzen, baina eztrandatik hurbil daudela. Itxurazko baretasunak eta berpiztutako ustekabeak. Era berean, badakigu urak, irakin aurretik, burbuilak gero eta modu kaotikoagoan aldatzen dituen egoera bat zeharkatzen duela. Hiru su indartsuen pean berotutako ura, elkar estimulatu dutenak eta beren botere bizigarria handitzen dutenak: krisi klimatikoaren jasangarritasunik ezaren boterea, krisi energetikoaren boterea eta desberdintasun kronifikatuarena. Ziur asko, ikuspegi sozial eta politikotik, azken egoera horretan gaude. Burbuilen garaia globalizazioaren eremu sozial eta politiko, itxuraz, lasaietan.

Elite hegemonikoen arteko tentsioak erakusten dituzten eta gailentzen ari diren burbuilak. Horren adibide dira, alde batetik, oraindik argitu gabe dagoen Wagnerreko mertzenarioen tropek Moskurantz egin zuten martxa; hori azkenean gelditu egin zen eta bere buruzagiak (Prigozhin) Bielorusian erbesteratua amaitu zuen. Bestalde, “trumpisten jendetzak” AEBko Kongresuari egindako erasoaren inguruko epaiketak daude, ez baitzuten onartu hauteskundeak galdu zituztela. Brasilgo botere demokratikoen, ordezkarien ganberen eta organo judizialen aurkako mobilizazio “bolsonaristaren” oso antzekoa. Ameriketako Estatu Batuak eta Txinaren arteko tentsioetako hainbat burbuila. Edo burbuilak Europan bertan, Ukrainako gerrarako finantzaketa handitzearen edo bake irteera negoziatuak bilatzeko presioa egitearen artean dagoena. Edo energia-politiken inguruko tentsioak klima-aldaketaren aurrean eta Errusiarekiko harreman ekonomikoen hausturaren inguruan. Aldebikotasunetik aldeaniztunerako jauzitik eratorritako burbuilak, BRIC lurraldeen larrialdiarekin eta boterearekin. Horretaz aparte, indarkeriatik, errepresiotik eta behartutako giza migrazioen fluxuen aurkako heriotzatik edo Europako gastu militarren gehikuntzatik eratorritako burbuilak daude. Hori guztia, indarkeria matxista eta heteropatriarkalarekin batera, kapitalismo globalizatzaile, kolonial eta jasanezin honen “zain irekien” zati izaten jarraitzen duen testuinguru batean.

Burbuila horiek guztiek, gero eta bizkorrago, Gerra Hotzaren garaietara atzera eginarazten digute. Etsaiarengandik, errusiar/txinatar “gaizkiaren ardatz” delakotik defendatu behar den ustezko mendebaldeko bloke baten artean banatutako mundu bat sortzen ari dira. Gerra Hotzaren izenean gizarteak behartuta daude mundu mediatiko eta politikoak egiten duen erritmoan lerrokatzera. Militarismoa eta distortsio gerrazaleak nagusitzen dira, eta arriskuak ere sortzen dira estatuen nazioarteko komunitatearen oreka konplexuetan.

Posible al da bizitzarekin, jasangarritasunarekin, justiziarekin, ekitatearekin eta etikarekin amets egitea eta konprometitzea garai gorabeheratsu hauetan? Izan al daiteke Unibertitate-hedapena beste bide indartsu eta aliatua indar sozial eta kultural aurrerakoi eta eraldatzaileekiko amets, itxaropen eta borroketan? Feminismoen, ekologiaren, dekolonialtasunaren, komunitate zientifikoen, herri-



hezkuntzako mugimenduen, demokrazia erradikaleko herritarren plataformen, artearen munduaren, gizarte-aldaketarako komunikazioaren eta abarren arteko sare artikulatuak amets eta konpromiso horien parte izan daitezke?

Unibertsitate hegemonikoak tradizio oso kontserbadoreak ditu, eta gero eta korapilatuago daude kapitalaren, produktibismoaren eta *statu quo*-aren zerbitzura dagoen irakaskuntza, ikerketa eta unibertsitate-hedapenarekin. Hala ere, badago beste unibertsitate kritiko bat, beste hezkuntza-eredu batzuen eta Unibertsitatea eta Gizartearen arteko harremanaren konpromiso eraldatzailearen alde egiten duena. Testuinguru horretan, gizartea ez dira botere sozialak, komunitateak, bizitza eta bertako ekosistemak, gehiengo esplotatuen, bortxatuen eta mendekoen itxaropenak eta ametsak baizik.

*Hariak* aldizkariaren ale honek Unibertsitatearen azken proposamen horren alde egin nahi du, eta baiezko erantzun apala baina garbia eman: bai, beste mundu batzuk posible dira. Akademiaren eta unibertsitate-hedapenaren konpromiso kritikoa eta eraldatzailea beharrezkoa izateaz gain, posiblea da horiek gizarte-mugimenduekin eta borrokan ari diren komunitateekin lankidetzan aritzea. Beste mundu batzuk beharrezkoak direlako eta zeinu desberdineko burbuilen artean jaiotzen ari direlako.

Juanjo Celorio Díaz  
Hegoako Hezkuntza Taldea



Eloisa Ibarbazabalek eta Humberto Tommasinok utzitako irudia.

## Hedakuntza Kritikoa eta Latinoamerikako Unibertsitatea: Unibertsitate publikoaren krisiari aurre egiteko gako politiko-akademikoak

**Eloísa Ibarzabal.** Uruguaitarra, 1988an Montevideon jaioa. Arkitekturan eta Hirigintzan graduatu zen 2017an, eta ikasle gisa hainbat proposamen eta hedapen-esperientzia sortu zituen, etxebizitzaren eta espazio publikoen autoeraikuntzari lotuta. Ikasle-trukeak egin zituen Campinas eta Chiapasen (Mexiko), Herri zapatista erreferentzia izan zen formazio herrikoian, erresistentzian eta autonomian. Orain, Hedakuntza Kritikoan, Programa Integraletan, Latinoamerikako Unibertsitatean eta periferian sakontzen ari da, [Uruguaiako Errepublikako Unibertsitateko](#) (Udelar) Hezkuntza eta Landa Hedapeneko maisutzaren eta Rosarioko Unibertsitateko (Argentina) Goi Hezkuntzako Hedakuntza Espezializazioaren bidez. Gaur egun, Lurraldeko Praktiken Programaren talde arduradunaren parte da Arkitektura, Diseinu eta Hirigintza Fakultatean. Programa horrek 2019az geroztik praktika integralak diseinatzen ditu Casavallen, Montevideoko periferiako auzoan, bertako auzokideekin.

**Humberto Tommasino.** Uruguaitarra, 1957an Montevideon jaioa. Albaitaritza ikasi zuen eta bere karrera amaitu bezain pronto, hiri hondakin solidoen sailkatzaileekin lanean hasi zen Montevideoko periferian. Garai hartan Maroñasko hipodromoan ere lan egin zuen eta Bileren bidezko Langileen Sindikatuan parte hartu zuen. Han egin zituen ezker kritikoari buruzko lehen ikasketak. Brasilen egin zituen graduondoak, eta han sakondu zituen Hedakuntza kritikoari buruzko ikerketak, Paulo Freireren lanei esker. 2006an, Uruguaiako Errepublikako Unibertsitateko Hedapeneko ProErrektore izan zen 2014ra arte. Udelarretik herri sektoreekin Hedakuntza Kritikoa eta elkarrizketatzailea bultzatzen saiatu zen. Montevideo hiriaren ekialdean Metropoli Programa Integrala sortzen lagundu zuen. Era berean, Bella Unióneko Herri Prestakuntzarako Zentroa sortzen lagundu zuen, azukre-kanaberako langileekin eta iparraldeko nekazariekin batera, baita Herri Prestakuntzarako Zentroa ere Gizarte Erakundeekin batera, Uruguaiako Etxebizitza Kooperatiben Federazioarekin, Elkarrekiko Laguntza eta Uruguaiako langileen sindikatuekin batera. 2008tik Brasileko Lurrik Gabeko Mugimenduarekin lotzen da, hainbat prestakuntza-jardueratan parte hartu baitu. Gaur egun, Uleu Taldearen (Latinoamerikako Hedakuntza Batasuna) koordinazioa integratzen du: «Difusión Crítica: teoría y prácticas en América Latina y Caribe» (Hedakuntza Kritikoa: Latinoamerikako eta Karibeko teoriak eta praktikak). Argentinako Rosarioko eta Mar del Platako Unibertsitateek emandako Honoris Causa doktore titulua jaso zuen.

## Hitzaurrea

XX. mendearen hasieratik aurrera, Latinoamerikako Unibertsitate Publikoak aurrerapen batzuk izan ditu eta kapitalismoarekiko prestakuntza kritikorako gune bihurtu da. Aurrerapauso eta atzerapausoekin, eta baita garapen kapitalistari eta horren alderdi desarrollistenari lotutako joesira indartsuekin ere, espazio unibertsitario askotan alternatiba ez-kapitalistak planteatu dira. Horiek bultzada jaso dute gizarte-mugimendu eta alderdi politikoen aldetik, beti ere erreproduzio sozial nagusiaren aurkako ikuspegiekin. Esparru horretan, antolatutako ikasle-mugimendua azken jarrera horien aurrerabidean subjektu erabakigarria izan den taldea izan da, eta irakas-teko eta ikasteko modu berriak bultzatu ditu, parte-hartzaileagoak eta elkarrizketatzaileagoak. Ezagutzaren ekoizpenari dagokionez, interes orokorreko gai nazionalen buruzko oinarritzko arreta sustatu du, Carlos Quijano, Darcy Ribeiro, Pablo Carlevaro eta beste unibertsitate batzuetako intelektualekin eta irakasleekin batera, ikerketa-agendak lehenesteko. Gizartearekiko loturari dagokionez, XX. mendearen hasieratik gizarte-konpromisoa planteatu du menpeko sektore eta herrikoiekin batera, hainbat proposamenekin, tartean herri-unibertsitateekin edo misio soziopedagogikoekin. Beste egile batzuen artean Paulo Freirek eta Orlando Fals Borda bultzatutako herri-hezkuntzaren mugimenduen eta ikerketa-ekintza parte-hartzailearen eraginetik abiatuta, XX. mendeko 90eko hamarkadaren hasieran, zenbait unibertsitate-eremutan, Hedapen Kritikoa sustatu da, gizartearekiko eta, bereziki, haien herri-sektoreekiko beharrezko lotura egoki gisa (Medina eta Tommasino, 2018). Bultzada horrek indarberritu egiten du jada indarrean dagoen Latinoamerikako Unibertsitatearen ideia, eta aurrerapen-prozesu batzuk sortzen ditu ildo antikapitalistan, dekolonialean eta patriarkatuaren aurkakoan, unibertsitate publikoaren merkantilizazio- eta pribatizazio-prozesuei aurre egiteko orduan kontuan har daitezkeenak.

« Globalizazio kapitalistaren aurrerapenak lehenetsizko espaziotzat hartu du hezkuntza »

## Unibertsitate publikoaren egungo krisia

Mundu mailan, globalizazio kapitalistaren aurrerapenak hezkuntza lehenetsi beharreko gunetzat hartu du, hezkuntzarekin eta kulturarekin lotutako kapital-metaketaaren prozesuak dinamizatzeko. Prozesu horrek duela hamarkada batzuetatik hona abian dagoenak, bultzada berria eta formatu berriak hartu ditu COVID-19ari lotutako pandemiak eragindako osasun-, ekonomia- eta gizarte-larrialdia agertu zirenetik. Hezkuntzaren prozesu birtualak sakontzen dira maila guztietan, eta horrek berekin dakar hezkuntza-sistema osoa, haren harremanak, ondorioak eta inpaktuak birpentsatzea munduko biztanleria osoari eragiten dion neurrian. Unibertsitatearen garai bateko krisi batean sakontzen da, hainbat egilek aztertzen dutena larrialdi horren argitan (Agamben 2020, Santos 2010a, 2010b eta 2020). Zehazki, Santosek «hegemonia» eta «legitimitate» handiko krisi bat identifikatu du. Krisi hori sendotu egin da Estatuaren aurrekontu-faltari lotutako erakunde-krisia deritzon eta hortik kanpoko laguntza-funtsetara jotzeko premian. Baldintza horrek hiriburuen nazionalen eta transnazionalen hiriburuen mende jartzen du, eta, ondorioz, autonomia galtzen du. Hortik aurrera, unibertsitate-hedapena prozesu horiei aurre egiteko ezinbesteko estrategiatzat jotzen du egileak (Santos, 2010a).

## Latinoamerikako Unibertsitatea: haren funtsezko ezaugarrietako batzuk

Carlevaroren<sup>1</sup> arabera (2019), Unibertsitatearen kontzeptzio latinoamerikarrak, lehenik eta behin, txertatuta dagoen gizartea ulertzea dakar; bigarrenik, elite intelektual bat izan gabe gizartea zerbitzatzeko bokazioa; eta, hirugarrenik, hura osatzen duten ordena desberdinen bateratutako gobernuaren defentsa.

1 Pablo Carlevaro (1927-2015) Uruguako Medikuntza Fakultateko mediku, irakasle eta dekanoa izan zen. Ikaskuntza eta Hedapen Programaren (APEX) sortzailea izan zen, Latinoamerikako Unibertsitatearen erreferentea.





Iturria: Langileen Osoko Bilera Intersindikala eta Langileen Konbentzio Nazionala (Uruguai)

Unibertsitate-hedapenaren kontzeptuak lotura estua du Latinoamerikako Unibertsitatearen ideologiarekin. Udelarren (UY) hedapena ikasleek lehen elkarteek bultzatu zuten (Medikuntza, Zuzenbidea, Agronomia) 1915 aldera, 1908an sortutako Ikasleek Amerikako Biltzarren aurrekaria zutela (Argentina, Bolivia, Brasil, Txile, Paraguai, Peru eta Uruguai ordezkariekin). 1918 inguruan, Kordobako Unibertsitate Erreformak aldaketa horiek katalizatu zituen, eta mugari bat ezarri zuen borroka horretan. Hurrengo urteetan, hainbat ikasle-mugimendu «erreformista» egin ziren, kultura indartu nahi zutenak. Hedapen «kulturalista» (Bralich, 2007) hori sindikatuarekin eta gremioekin lotzen zen, ematen ziren ezagutzak Unibertsitate barnera azaltzeko eta transferitzeko. Carlos Quijano<sup>2</sup> (2008), unibertsitate-ezagutza arazo nazionaletara bideratzeko asmoz, honako hau jartzen zuen zalantzan: «Unibertsitateak ez du sakoneko arazo nazionalik aztertzen (...) Ez al da beharrezkoa arkitektura-fakultateak bere iritzia ematea Montevideoko urbanizazioaren arazoari buruz?».

2 Carlos Quijano (1900-1984) abokatu, politikari, saiogilea eta ezkerreko kazetari uruguaitarra zen, *Marcha* astekariaren sortzaile eta zuzendaria.

1970. urtearen inguruan, Paulo Freireren ideiak Amerikako hainbat herrialdetan zabaltzen hasi ziren, eta zalantzan jarri zituzten iraultza berdeari lotutako landa-hedapenetik eratorritako hedapen-praktikak. Autorearen arabera, «Herriak haien berreskurapenaren eragile eta buktzatzaile egin behar dira [...] Erantzukizuna egitate existentziala da [...] Asistentzialismoan ez dago erantzukizunik, ez dago erabakirik, pasibotasuna eta 'etxekotasuna' erakusten duten keinuak baino ez daude». (Freire, 1998, 50-51. orr. hemen: González, 2022).

Hezkuntza herrikoi anti-asistentzialistaren ideien argitan, Uruguain misio soziopedagogikoak bezalako mugimenduak sortu ziren, Julio Castoren<sup>3</sup> bultzada indartsuarekin eta FEUUko<sup>4</sup> y el apoyo de estudiantes de la FEUU<sup>4</sup>, ikasleen babesare-

3 Julio Castro (1908-1977) irakasle, buruzagi eta militante uruguaitarra izan zen, eta hezkuntza publikoan lan handia egin zuen. Diktadurak bahitu eta hil zuen garaiko errepresioan. Haren gorpua hobi batean aurkitu zuten, esparru militar batean. Garai hartako intelektual eta politikoko garrantzitsuenetakotzat hartzen da eta haren irakaspenek aztarna sakonak utzi dituzte Uruguai hezkuntzan eta gizartean.

4 FEUU, Uruguai Unibertsitateko Ikasleek Federazioa.

kin, besteak beste. XX. mendearen erdian, gizarte-borroka berriei lotutako ikuspegi askatzailea garatu zen. Uruguain, ikuspegi hori 1958ko Unibertsitatearen Lege Organikoan (12.549 Legea) islatzen da. Lege horrek autonomiaren eta baterako gobernuaren oinarriak ezartzen ditu, eta unibertsitate-funtzio substantiboak planteatzen ditu (irakaskuntza, ikerketa eta hedapena). 2. artikuluan adierazten du Unibertsitateak «interes orokorreko arazoak aztertzen lagundu behar duela eta arazo horiek publikoki ulertzeko joera izan behar duela» (Udelar ikasleen babesarekin, besteak beste. XX. mendearen erdian, gizarte-borroka berriei lotutako ikuspegi askatzailea garatu zen. Uruguain, ikuspegi hori 1958ko Unibertsitatearen Lege Organikoan (12.549 Legea) islatzen da. Lege horrek autonomiaren eta baterako gobernuaren oinarriak ezartzen ditu, eta unibertsitate-funtzio substantiboak planteatzen ditu (irakaskuntza, ikerketa eta hedapena). 2. artikuluan adierazten du Unibertsitateak «interes orokorreko arazoak aztertzen lagundu behar duela eta arazo horiek publikoki ulertzeko joera izan behar duela» (Udelar<sup>5</sup>, 1958, 1. or.). Lege horrek berretsi egiten du Latinoamerikako Unibertsitateak gure herrialdean duen paradigma eta Carlevarok gizarte-eraldaketan duen rola, dimentsionatzen laguntzen diguna: «Gure zereginaren aukera guztiak ikusten ditugun heinean, zentzutasun eta apaltasun nahikoa izan behar dugu jakiteko unibertsitateek ez dituztela gizarteak eraldatzen. Era berean, jakin behar dugu gizartearen aldaketa eta eraldaketa handiak eragiten dituzten gizarte-mugimenduak ideietan, ikasketetan, edota Unibertsitatean sortzen diren proiektuetan oinarritu daitezkeela, baina askogatik gainditzten dutela Unibertsitatea». (Carlevaro, 2019, 12. or.).

Unibertsitatearen ideia horiek bultzatzen ari zirenaldi berean, hezkuntza-merkantilizazio prozesu bat ere martxan zegoen. Horrek unibertsitate-entresarako joera bideratzen zuen, auto-sostengatzailea, non zentzua izango baitzuen, adibidez, matrikula kobratzeak, beste mekanismo batzuen artean. Iraultza berdeak eta berrikuntzak zabalteko proposamenak, 1940az geroztik AEBetan bultzatuak, sustapena ematen dio paradigma horri, non Unibertsitateak enpresei zerbitzuak saltzen dizkien eta berrikuntza teknologikoetara iris-

« Askotan, gizarte-formatu jakin baten alde jokatzeko unibertsitateek, eta ez diote erreparatzen euren eraldatzeko ahalmenari »

teko eta lehia eta produktibitatea hobetzeko aukera ematen dien. Estentsionismo transferentzialista eta erabilgarri hori XX. mende bukaerako eta XXI. mendeko hasierako kontrarreforma neoliberaltzat hartzen da.

Zenbaitetan, unibertsitateak gizarte-formatu jakin batekin lerrokatuta daude, eta ez diote erreparatzen haien botere eraldatzaileari, gizarte mota jakin bati eusten laguntzen baitute: gizarte horren produktu dira eta horren zerbitzura daude. Beraz, unibertsitateak hemen duen rolaz eta gizartearekin duen harremanaz hitz egiteak hau esan nahi du: alde batetik, berriro pentsatu behar dela nolakoak diren gure gizarteak, zer behar dituzten, zeren mende dauden, norantz joan behar duten, eta zein diren jasan beharko lituzketen egitura- eta politika-eraldaketak; bestetik, zer ekarpen egin behar dioten eta egin diezaioketen eraldaketari eta aurrerapenari, gizarte horiek sostengatzen dituzten unibertsitateek (Carlevaro, 1986). Gizartea ulertzeko nahitik, gizartea zerbitzatzeko bokaziotik, arazo nazionalak aztertze-ko eta kultura sortzeko beharra eratoritzen bada, gizarte-ingurunera proiektatzeko beharra ere ondorioztatzen da, bertan zuzenean jarduteko, herriarekin harremanetan jartzeko, eta harekin modu elkarrengarigile batean jarduteko. Unibertsitatearen hedaduraren oinarria da unibertsitateko harresien mugak zeharkatzeko proiektzio eta zigilatze behar hori. Ez dago ez hitzaldirik, ez klase magistralik, ez filmik, ez ikus-entzunezko bitartekorik, nahiz eta hobeto landuta egon, ikasleak errealtate sozialarekin duen zuzeneko harremanaren esperientzia pertsonala eta besterenezina ordezkatu dezakeenik.

Carlevarok (1998), bestalde, Unibertsitatearen baliabideen garrantzia eta hedapenak aurrekontu-murrizketetan jasaten dituen ondorioak ezartzen ditu, eta hori larriagotu egiten du hasieratik funtzio baztertua izateak. Era berean, gaur egun indarrean dagoen hausnarketa bat bultzatzen du

5 Udelar, Errepublikako Unibertsitatea, Uruguai.

« Hedapena ere adierazgarria izan da, eta horri esker artikulatu ahal izan dira unibertsitatea egiteko modu hegemonikoak eztabaidatzeko gai izan diren proiektu politiko-akademikoak »

errealitatearen arazoei aurre egiteko, ikasgelako dinamikei, klase magistralei, diskurtsoari, eduki tematikoei, ikaslearen talde-zereginari eta zeregin afektiboari, eta horiek arlo guztietan duten eta beharrezkoa den eraldaketari dagokionez. Aldi berean, dinamika horiek berak desafiatzen ditu, espazio itxiek duten aberastasuna planteatuz, non beste jakintza garrantzitsu batzuk txertatzen diren, eskema pedagogikoan aurreikusitakoaz haratago. Horretarako, beharrezkoa da irakasleek nolabaiteko malgutasuna izatea, ikasgeletatik kanpoko irakaskuntzari eusteko eta hura diseinatzeko.

Liburu berean, *La Universidad querida* izenekoan, Carlevarok (2016) gaur egun oihartzun handia duten gai batzuk aipatzen ditu, hala nola Unibertsitateak aktore desberdinen (sozialak, instituzionalak, etab.) katalizatzaile gisa duen erantzukizuna, izaera «irekia» duelako, eta aztertze, eztabaidatzeko eta proposatzeko xedea duelako. Unibertsitateak, hedapenetik eta praktika integraletatik, eraldaketa sozialean eragiteko erronka eta aukera bat du aldi berean, bere rola problematizatu eta bere autonomia defendatu gabe, integraltasuna honela ulertuz: irakaskuntza, ikerketa eta hedapenaren funtzioen arteko koordinazioa, diziplinarteko abordatzea eta lotutako aktoreen eta jakintza akademiko eta herrikoien arteko harreman elkarrizketatzaileago kritikoa. Azkenik, oso garrantzitsua da lurraldeak irakasle gisa duen garrantzia eta balioa aintzat hartzea. Eremu kolektiboak, hezkuntzakoak, sindikatuak, poliklinikak eta auzo-zentroak dira jakintza komunak berritzeko, sortzeko eta ekoizteko agertokiak, eta haiek gizarte orekatuago baterantz eraldatuko gaituzte. (Tommasino eta Stevenazzi, 2017). Hori bakarrik posible izango da Unibertsitatea barrualdera eraldatzen bada eta, aldi berean, Carlevarok (2019) zioen bezala, «gizarte-espazioaren intimitateak» bertan bizitzea lortzen badu.

## Hedakuntza kritikoa

Kontzeptu polisemikoa bada ere, «hedapena» ere adierazgarria izan da eta, horri esker, proiektu politiko-akademikoak artikulatu ahal izan dira. Horiek Unibertsitatea egiteko modu hegemonikoak eztabaidatzeko gai dira, eta irakaskuntza- eta ezagutza-sorkuntza-prozesuak arazo nazional handiekin eta herri-sektoreen beharrekin lotzen saiatu dira (Tommasino eta Cano, 2016). Hedapenaren azterketa zabaltzeko, beharrezkoa da integraltasunaren esparruan unibertsitate-funtzioak artikulatzen dituen rola aztertzea. Izan ere, *a priori*, planteatu zen bezala, irakaskuntza-, ikerketa- eta hedapen-funtzioen arteko artikulazioa eta koordinazioa, diziplinarteko lanketa eta lotutako aktoreen eta jakintza akademiko eta herrikoien arteko harreman elkarrizketatzaileago-kritikoa suposatzen ditu. Horrek esparru teoriko-metodologiko-politiko batera garamatza, Unibertsitatea lurralde-txertaketatik abiatuta nola sustatu pentsatzeko. Eren egungo eztabaida eta proposamenek ospea lortu dute, eta dimentsio hauen inguruan eraikitzen dira: herri-mugimenduak, praktika pedagogiko irakasleak diren aldetik (Di Matteo, 2021); genero-ikuspegia eta borroka feministak, bizimodu estandarizatuen eta hegemonikoen lehian (Colacci eta Filippi, 2020); ezagutza-koprodukzioa erakundeekin (Michi 2020, Bringel 2015); ikasleak Hedapen Kritikoan erabat txertatzea, eta, horrekin batera, hedapenaren curriculuma ezartzea.

Ikuspegi horretatik, menpekotasun-, bazterketa-, menderatze- eta esplotazio-prozesuak jasaten dituzten biztanleriaren sektore gehien arazoak konpontzera bideratutako hedapenari esker, ikasleek, kasu askotan, gure biztanleriaren sektore zabal horien bizitza- eta lan-problematikak agerian utzi eta bizi ditzakete. Horrela, Unibertsitateak, funtsezko funtzio horren bidez, sentsibilizazio-, biguntze- eta elkartasun-prozesuak sortzen dituzten egoerak ezagutzeko aukera ematen du (Medina eta Tommasino, 2018). Gainera, ikerketa-agendak in-

« Unibertsitateak, funtzio substantibo horren bidez, aukera ematen du sentsibilizazio-, humanizazio- eta elkartasun-prozesuak sortzen dituzten egoerak ezagutzeko »





Iturria: La Diaria (Uruguay).

teres nazionalako gai handietara bideratzen ditu, eta jakintza-ekoizpen konkretu bat sustatzen du.

Hedapena Unibertsitatearen gida politiko kritikogisa ulertzeko ildo beretik, Romina Colaccik eta Julieta Filippik (2020) defendatuko dute borroka feministaren ikuspegiak eta Hedapen Kritikoaren praktikak elkarguneak dituztela, biek ala biek agerian uzten baitituzte geroratze-, bazterketa-, menderatze- eta esplotazio-prozesuak, eta bizi-modu estandarizatu eta hegemonikoak eztabai-datzen baitituzte. Zeharkakotasunetik (feminismoak proposatzen duena) eta integraltasunetik (Hedakuntza Kritikoak proposatzen duena), bi logikak indartzen dira prestakuntza, lan eta lotura modalitate berriak ezartzeko, sentikorragoak eta gizatiarragoak. Beharrezkoa da, egileek esango dutenez, logika feminista Hedapen Kritikoaren praktikaren oinarrian bertan egotea, feminismoak eta Hedapen Kritikoak lan egiten duten aktoreen muga estrukturalak eta sozialak aldatu nahi dituzten unetik, azken batean, boterea birbanatzeko edo berrasmatzeko.

## Azken hausnarketa laburrak

Hedapena, bere bertsio kritikoa, hezkuntza-prozesu bat da, non guztiek ikasi eta irakatsi

dezaketen, non jakintza herrikoiak, akademikoak eta zientifikoak elkar osatzen duten, aurrez aurre jartzen diren eta kritikoki artikulatzen diren. Espazioak, non elkarrekiko interpelazio bat prozesatzen den, logika eta praktika antikapitalista, dekoloniala eta antipatriarkalaren eragina duten eraldaketa-jakintza berriak sortuz, (Erreguerena, Nieto, Tommasino, 2020). Beraz, azken batean, gida politiko bat da, unibertsitate berri batera garamatzana, beharrezkoa (Ribeiro, 1967), maitatua (Carlevaro, 2019) eta polifonikoa (Santos, 2019).

Laburbilduz, Hedapen Kritikoak, XX. mendeko 70eko hamarkadatik aurrera, bat egiten du Unibertsitate latinoamerikar autonomoa, elkarrekin gobernatua, sarbide askekoa, solidarioa eta doakoa eraikitze ahaleginekin, katedra askeekin eta gizarte postkapitalista, zuzena, duina eta solidarioa, antipatriarkala eta dekoloniala eraikitzea bideratua. Ereduak zabaltzeko asmorik gabe, eta beste eremu geografiko batzuetako errealitateetarako alternatibak proposatu gabe, uste dugu Hedapen Kritikoak eta Latinoamerikako Unibertsitatea izan daitezkeela krisian dauden unibertsitate publikoak berrasmatzeko inspiratzaile, prozesu ekonomiko neoliberal eta kontserbadoreen emaitza baitira.

## Bibliografía


- Agamben, Giorgio (2020): *Réquiem por los estudiantes*, Nápoles, Istituto Italiano per gli Studi Filosofici.
- Bauzá, Javier *et al.* (2017): *Prácticas sociales educativas*. Mendoza, Cuyoko Unibertsitate Nazionalea.
- Bralich, Jorge (2007): *La extensión Universitaria en Uruguay*. Montevideo, Udelar Inguruneke Hedapen eta Jardueren Zerbitzu Nagusia.
- Bringel, Breno (2015): «Fronteiras difusas: movimentos sociais, intelectuais e construções de conhecimentos» *in*: Perruso, Marco Antonio eta Mônica da Silva Araújo (Antolk.): *Ciência e Política: memórias de intelectuais*, Rio de Janeiro: Mauad, 57-69. or.
- Cano, Agustín (2017): «La extensión universitaria y la Universidad latinoamericana: hacia un nuevo <orden de anticipación> a 100 años de la revuelta estudiantil de Córdoba». *+E: Revista De Extensión Universitaria*, 7. zk.: 6–23. or.
- Carlevaro, Pablo (2019): *La Universidad querida*, Montevideo, Medikuntza Fakultateko Edizioen Fundazioa, Errepublikako Unibertsitatea.
- Colacci, Romina eta Julieta Filippi (2020): La Extensión Crítica será feminista o no será. *Revista e+e*, 9. zk. (abuztua), 18-29. or.
- Di Matteo, Javier, Norma Michi, Diana Vila (2021): *Universidad, movimiento y educación: entre senderos y bordes*, Buenos Aires, EdUNLu.
- Erreguerena, Fabio, Gustavo Nieto eta Humberto Tommasino (2020): «Tradiciones y matrices, pasadas y presentes, que confluyen en la Extensión Crítica Latinoamericana y Caribeña». *Cuadernos de Extensión Universitaria de la Universidad Nacional de La Pampa*, 4. zk. (urtarrila-abendua), 177-204. or.
- Freire, Paulo (1987): *Pedagogía do oprimido*, Rio de Janeiro, Paz e Terra.
- Freire, Paulo (1998): *La educación como práctica de la libertad*. Mexiko Hiria, XXI. mendea
- Gago, Verónica, Cristina Cielo eta Francisco Gachet (2018): «Economía popular: entre la informalidad y la reproducción ampliada». *ÍCONOS Revista de Ciencias Sociales*, 62. zk. (iraila) 11-20. or.
- González, Luis, María Lourdes eta Natalia Pais-Álvarez (2022): «Acontecimiento y desorden: un diálogo emancipador entre Paulo Freire y Boaventura de Sousa Santos». *Pedagogía y Saberes*, 56. zk. (urtarrila) 55-68. or.
- Medina, Juan Manuel eta Humberto Tommasino (bildum.) (2018): *Extensión Crítica: construcción de una Universidad en contexto. Sistematizaciones de experiencias de gestión y territorio de la Universidad Nacional de Rosario*, Rosario, Rosarioko Unibertsitate Nazionalea, argitaratzailea.
- Meneses, María Paula *et al.* (2019): «Hacia una Universidad polifónica y comprometida: pluriversidad y subversidad» hemen: de Sousa Santos, Boaventura: *Construyendo las Epistemologías del Sur Para un pensamiento alternativo de alternativas, Volumen II*, Gizarte Zientzien Latinoamerikako Kontseilua, 699–734. or.
- Michi, Araua (2020): «Reflexiones sobre prácticas de producción colectiva de conocimientos o pequeñas contribuciones a una agenda de trabajo. Investigación Militante» hemen: Melgarejo, Patricia (koord.): *Pedagogías del sur en movimiento. Nuevos caminos en investigación*, Veracruz, Ed. Veracruzana Unibertsitatea, 82-89. or.
- Quijano, Carlos (2008): *La reforma universitaria: desafíos y perspectivas noventa años después*, Buenos Aires, Gizarte Zientzien Latinoamerikako Kontseilua.
- Ribeiro, Darcy (1967): *La Universidad necesaria*, Buenos Aires, Galerna argitaletxea.
- Santos, Boaventura de Souza (2010a): *Descolonizar el saber, reinventar el poder*. Montevideo, Argtz. Trilce.
- (2010b): *La Universidad en el siglo XXI, para una reforma democrática y emancipatoria de la Universidad*, La Paz, Argtz. Plural.
- (2020): «A universidade pós-pandêmica» hemen: *Outraspalavras*, (2023ko urtarrilaren 2an kontsultatua), hemen eskuragarri: <https://outraspalavras.net/alemdamercadoria/boaventura-a-universidade-pos-pandemica>.
- Tommasino, Humberto eta Agustín Cano (2016): «Modelos de extensión universitaria en las



universidades latinoamericanas en el siglo XXI: tendencias y controversias». *Universidades*, 67. zk. (urtarrila-martxo), 7-24. or., hemen eskuragarri: <<https://www.redalyc.org/pdf/373/37344015003.pdf>>.

Tommasino, Humberto eta Felipe Stevenazzi (2017): «Reflexiones en torno a las prácticas integrales en la Universidad de la República» hemen: +E: *Revista De Extensión Universitaria*, 6. zk. (martxo) 120–129. orr. (2023ko urtarrilaren 20an kontsultatua), hemen eskuragarri: <<https://doi.org/10.14409/extension.v1i6.6320>>.

Udelar (1958): «Ley Orgánica de la Universidad de la República» hemen: *Dirección General Jurídica de la Universidad de la República* (2023ko urtarrilaren 16an kontsultatua), hemen eskuragarri: <<https://dgjuridica.udelar.edu.uy/ley-organica>>.







Isabel Rauber (ezkerrean) eta Nicolás A. Herrera Farfán (eskuinean) *Unidad en la diversidad. Camilo Torres y el Frente Unido del pueblo* liburu kolektiboaren aurkezpenean. Buenos Aires, Argentina, 2014.

## Isabel Rauberrekin elkarrizketa

# Unibertsitateak funtsezko zeregin bat du: herri-mugimendu sozialen esperientzia kolektiboekin artikulatzea

**Isabel Rauber** eda gure garaiko intelektual organiko zorrotz, sortzaile eta zorrotzenetako bat. Argentinan jaioa, Kuban hezia, filosofian doktorea Habanako Unibertsitatean, eta aditua biofilosofian, herritarren parte-hartzean eta genero-ikasketetan. Irakasle eta adiskide hau Hirugarren Munduko Ikasketen Departamenduko (CIEPE) eta Iraganeko eta Egungo 21 Ikasketa Taldeko zuzendaria da, Oinarrizko Intelektualen Sareko koordinatzailea, UNESCOko ikertzaile independentea, Alternatiben Mundu Foroko kidea eta CLACSOko “Latinoamerikako ezkerak eta borroka sozialak” lantaldeko kidea, Ginebrako (Suitza) Nazioarteko Goi Ikasketa eta Garapen Institutuko irakasle gonbidatua eta Lanusko (Argentina) Unibertsitate Nazionaleko irakaslea.

**Nicolás Armando Herrera Farfán**, Hego Kolonbiako Unibertsitateko psikologoa, Jujuyko (Argentina) Unibertsitate Nazionaleko diplomaduna, Buenos Airesko Unibertsitateko Psikologia Sozial Komunitarioan magisterra eta Gizarte Zientzietan doktoregaia. Colectivo Frente Unido–Investigación Independienteko (CFU) eta Buenos Airesko Unibertsitateko Latinoamerikako eta Karibeko Ikasketen Institutuko (IEALC–UBA) ikertzailea.

**Nicolás Herrera.** Titulu guztiak gorabehera, nahiago du herri-intelektual dela esan, mugimendu sozial indo-afro-latinoamerikarren ikasle/aditu, pedagogo politiko eta herri-hezitzaile. Hala, azken mende erdi honetan, gertutik jarraitu die Hegoalde globaleko herri-kolektiboei, mugimendu sozialei eta proiektu politikoei. Ikasle, adiskide eta bidelagun izan ditu pentsalari handiak, hala nola Samir Amn, François Houtart, István Mészáros, Enrique Dussel, Franz Hinkelammert, Orlando Fals Borda eta Marta Harnecker.

Artikulu, kapitulu eta hogeita hamarren bat liburuko ibilbide intelektual zabala egin du. Argitaratu duena baino askoz gehiago idatzi duela uste dut, eta buruan sartzeko zaiona baino askoz gutxiago. Bere azken tituluaren artean daude: *Marta Harnecker. Vida y pensamiento* (Argentina, Dominikar Errepublika); *Descolonizar la subjetividad. Hacia una nueva razón utópica indo-afro-latinoamericana* (Argentina, Kuba); *Refundar la política. Desafíos para una nueva izquierda latinoamericana* (Argentina, Bolivia, Kolonbia, Dominikar Errepublika, Venezuela); *Hagan lío. Mensaje del Papa Francisco a la juventud latinoamericana* (Argentina, Kolonbia, Venezuela); *Revoluciones desde Abajo* (Argentina, Venezuela); *Movimientos sociales y representación política. Articulaciones* (Argentina, Dominikar Errepublika, Bolivia, Kolonbia, Kuba, Mexiko); eta *Género y poder* (Argentina, Galizia).

Isabel “belarri bat herrian eta beste bat liburuetan duela” forjatutako pentsalaria da. Herri-mugimenduetan bildu zuen bere jakinduria. Hortik abiatuta, galderak egin, gogoetak ehun eta alternatibak eraikitzen ditu gai hauei buruz: herri-boterea behetik gora eraikitzeko prozesuak, despatriarkalizazioa, demokratizazioa eta herriaren parte-hartzea erabakiak hartzeko orduan; gainera, sistematizatu egiten ditu prozesu horiek, ahozko historiak eta testigantzetatik abiatuta.

Loturak aprobetxatuz, Hegoa Institutuko hezkuntza-taldeko Amaia del Río Martínezek Isabelekin elkarrizketa bat egitea proposatu zidan, ez itaunketa bat, zibilizazioen krisiaz, unibertsitateko hezkuntzaz eta alternatibak eraikitzeaz. Onartu egin nuen, Isabelen elkarrizketak argiz beteak baitira, ostertzak erakutsi eta zer ikasia ematen dute, eta ez dira anekdota soilak, ohiko esaldiak, ideia solteak edo anabasa hutsa.

Su geldian egositako prozesua izan da: Hegoaren akuilu moduko galderak nik berrikusi eta egokitu, eta Isabelek zuzenketa batzuk iradoki zituen. Kontsentsu minimo horretan oinarriturik frijitu zen dena (ia hitzez hitz) Argentinako udaren epilogoan: erantzunak transkribatu, Isabeli bidali eta hark azken ukituak eman zizkion. Sukaldearen metafora erabiltzen dut sor Juana Inés de la Cruz gogoan dudala, sor Filoteari honela idatzi baitzion: “Aristoteles sukaldean aritu balitz, askoz gehiago idatziko zuen”.

Hauxe da Bilbo-Lanús-Buenos Aires arteko elkarrizketa horren emaitza. Erdi-erdian egon naiz ni, zirrarez beterik, Isabelekin ikasten jarraitzeaz harro; izan ere, adiskide eta lagun miresgarria da, eta oraindik kafe asko hartu behar ditugu etsipenak uxatzeko, konplizitateak ehuntzeko eta izar gorri, argizko gurutze eta tximeleta horien etorkizunak bilatzeko.

**Nicolás Herrera. Kapitalismoaren logika modernoak eragin duen zibilizazioen krisialdi batean bizi gara. Posible al da itxitura horretatik irtetea eta ostertz emantzipatzaile berri bat eraikitzea?**

**Isabel Rauber.** Kapitalismoa mehatxu bat da biziarentzat, eta hor den-dena sartzeko dut, naturarik gabe ez baitago biziraupenik; hots, arriskuan jarri da planetaren bizi integrala. Pentsatu eta alternatibak eraiki behar dira, ez daudela pentsarazi diguten arren, ez baitago errezeta-libururik kontsultatu ahal izateko.

Horretan jardun eta pazientzia eduki behar dela uste dut. Izan ere, herriek ez diote heriotzari men egiten, borrokan egiten dute, amore eman gabe, nahiz eta ez jakin alternatibak bultzatzen ari direla, edo nahiz eta halakorik ez eduki. Egunero bizirik irauteko lanetan eta bilaketetan sortzen eta eraikitzen da alternatiba, zatiturik edo osatzeke egon arren. Mugimenduak zenbat eta garatuagoak eta iraunkorragoak izan, sakonagoak izango dira alternatibaren eraginak, baina beti dago eta egongo da mugitzen eta berritzen.

Ezin da orain gosez hil ondoren sistema berri batean berpiztu; geuk asmatu eta eraiki behar dugu. Eta horretarako bizirik egon behar denez, orainetik eraiki behar ditugu bideak. Adibidez, nekazaritza ez da landatzea bakarrik, pentsatu egin behar da zer landatu (haziak), nola bildu (toxikoen eta transgenikoen kontrako borroka), nork bildu (negozioa eta nekazarien, indigenen

eta komunitatearen ekoizpena). Bizia berritzea eta heriotza ez ugaritzea da kontua.

Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduak (MST) erakusten du zer lor dezakeen erakunde iraunkor eta jasangarri batek, ostertzerrientzako aldaketa estrategikoa bilatzen duten subjektu kontzientez osatuak. Horrek ez du esan nahi mugimendu sozial bakarra denik, baina bere eduki, partaide eta iraupenagatik pisu espezifikoa bat erdietsi du, bere jardunetik asko ikasten da eta kontuan hartu behar da.

Lurrik Gabekoen Mugimenduaren lezioak ez dira mugatzen lurra eskatzera eta ekoizpena. Historiako objektuak ez baizik subjektuak hezten ditu, horiek beren subjektibotasuna eta kontzientzia indibiduala eta kolektiboa garatzen dute, komunitate bateko kide dira eta denen onerako jakintzak eskuratzen dituzte; hau da, hezkuntzak komunitateko kultura indartzen eta sustatzen du. Lurrik Gabekoen Mugimenduak gorpuzten dituen elementu horiek guztiek sortuko dute mundu berria, eta adibide horrek indar handia ematen digu. Nire ustez, mugimendu sozial bat definitzeko ezaugarri nagusi bat iraunkortasuna



Nicolás Armando Herrera Farfánen artxibo pertsonala.

da. Izan ere, ez du indar historiko bera protesta-mugimendu berri batek, aparra bezala sortu eta desagertzen denak, bere aldarrikapenekin batera, ikasbide gutxi utziz, oso baliotsuak izan arren.

Hor dago Auzo Eskubideen Defentsarako Batzordea (COPADEBA) ere, 1977an jaioa, Dominikar Errepublikako Santo Domingoko aldirietan diharduena. Mugimendu zabala izan zen baina gaur egun mugatuago da, ez delako artikulatu beste eragile batzuekin. Hori, hein batean, ezkerreko kultura elitista eta disekatzaile baten herentzia da, bere aurreiritziekin isolatu eta zokoratu egiten baititu horrelako herri-esperientziak, “nor dago atzean?” galdetuz. Eta mugimendu hori Oinarrizko Eliza Komunitatetatik eta Askatasunaren Teologiatik sortu zenez, atzean Vatikanoko interesak zeudela susmatzen zuten. Badakigu desadostasun handia egon zela fededunen eta marxisten artean XX. mendean, eta oraindik irauten du.

Lurrik Gabekoen Mugimendua eta COPADEBA ez ezik, gogoan ditut Kolonbiako auzo-mugimenduak; Bolivia, Ekuador, Guatemala eta Mexikoko herri indigenen matxinadak eta erakundeak. Baita mugimendu sindikal indartsuak ere, hala nola Argentinako Langileen Zentrala (CTA): lan-mundua berrantolatzeko egin zuen proposamenak apurtu egin zuen subjektu iraultzaile bakar baten ideia, langile-klase okupatu eta antolatura mugatua, eta zabaldu egin zuen bizirik irauteko beren lan-indarra saldu behar duten sektore guztietara, hau da, proletarioetara, langile-klase sindikatuaren sinonimoa izan gabe. Esperientzia horiek guztiek biziaren aldeko eta zibilizazio berri baten aldeko ikasbide asko ematen dituzte.

Horrekin guztiarekin, nire erantzuna baiezkoa da: kapitalismoak munduaz duen kontzepzio hegemonikoaren itxuratik irten daiteke. Herriak irte-ten ari dira hortik, bestela hilda egongo bailirateke. Biziaren alde duten jarrera sormen-iturri da, bizirik irauten dute eta gainditu egiten dute gero eta handiagoa den bazterkeria.

**Nicolás Herrera. Zein da unibertsitateen egitekoa prozesu horretan? Eraiki al dezakegu jakintzen elkarrizketa bat unibertsitatearen eta herri-sektoreen artean, testuingurua aintzat hartuz?**

**Isabel Rauber.** Argi dago: unibertsitateetan ez baizik mugimendu sozialetan daude alternatibak. Beraz, unibertsitatearen zeregin nagusia bere

logikatik irtetea da, mugimenduen esperientzia kolektiboekin artikulatzea eta bertan bilatzea erantzunak, zatituak edo osatu gabeak izan arren. Erantzun horiek artikulatzea eta kontzeptu eta proposamen berriak eraikitzea da egiteko nagusia.

Jakina, baztertu egin behar da jardunbide akademiko tradizionala, hau da, herri-jakintza xurgatzea, lapurtzea edo bereganatzea tesiak egiteko eta liburu ederrak idazteko. Zure lupa eta grabagailua hartuta informazioa atera, txostena egin eta agintari akademikoei aurkeztea jakintza lapurtzea besterik ez da.

Unibertsitateek funtsezko lana egin dezakete beste ikuspegi batetik lan eginez eta jakintzen trukea bultzatuz, pentsamendu kolektibo bat eraikitzeko. Horretarako, Ikerketa eta Ekintza Parte-hartzailea landu eta Herri Hezkuntza sustatu behar dira, herri-intelektualok egiten dugun moduan. Bi zentzu ematen dizkiot “herri-intelektual” hitzari: batetik, herrien jardunbideetan oinarritutako pentsamendu akademiko bat izaten saiatzen garenok; eta, bestetik, mugimenduetan hazi eta sortzen diren intelektualak, nahiz eta ez eduki tresna kontzeptual akademiko bat.

**Nicolás Herrera. Jakintzen arteko elkarrizketak aukera ematen du bizia duintzen duten beste arrazoibide batzuk entzuteko eta haietatik ikasteko. Ikaskuntzak eta borrokak biziberritzeko elkarrizketa horretan zer eginkizun dute kulturartekotasunak eta deskolonizazioak?**

**Isabel Rauber.** Batzuetan akademia bulgarizatzeke beldurra dago, baina jakintzen arteko elkarrizketa dagoenean –jarrera serio eta konprometitu batetik– jakintza zatiak ezagutu, kualifikatu, indartu eta jakintza kolektiboan mailara igotzen dira. Jakintzen arteko elkarrizketa ez da “herriaren” eta “jakintsuen” artekoa, buru “kamutsa” eta “zorrotza” dutenen artekoa, baizik eta jakintza desberdinen artekoa, esperientzia zehatzetan eta potentzialtasun teorikoan forjatua. Bi dimentsio horien artikulaziotik eta fusiotik oso jakintza aberatsa sortzen da. Intelektual organikoen funtsezko lana jakintza ugari horiek aurkitzea da, balioa ematea, artikulatzea eta jakintza edo ezagutza kolektibo bat azaleratzea.

Jakintzen arteko elkarrizketa, gaur egun, antzina baino zabalagoa da; izan ere, “herriko” eta “akademiko” dimentsioak 1970eko urteetan



Lorena López Guzmán historialaria (ezkerrean), Isabel Rauber (erdian) eta Nicolás A. Herrera Farfán (eskuinean) I. Rauberren *Hagan lio* liburuaren aurkezpenean. Buenos Aires, Argentina, 2017.

uste zena baino konplexuagoak dira. Herri-jakintzek hainbat ikuskera, nortasun, jakinduria eta subjektibotasun islatzen dituzte; eta ekoizpen akademikoan ere begirada, esperientzia eta historia oso baliotsuak daude jakintzen arteko elkarrizketarako. Gaur egun elkarrizketa sendotzen duen elementua kulturartekotasuna da, eta deskolonizazioa aurrusoposatzen du.

Deskolonizazioa da mundu berri bat eraikitzeke oinarria, funtsezkoa eta ezinbestekoa. Desarmatu eta gainditu egin behar da Iparraldeko munduaren begirada bakar harroa (zuria, gorputzez indartsua eta “kultura handikoa”), Hegoalde globaleko herrien inbasio, konkista eta lapurreta integral eta askotarikoan oinarritua.

**Nicolás Herrera. Eraman al daiteke hau unibertsitateetara, adibidez hedapen unibertsitarioaren bidez?**

**Isabel Rauber.** Nik uste dut hau eramán daitekeela unibertsitateetara, curriculum akademikora,

“ Bai atera daiteke kapitalismoaren munduaren ikuskera hegemonikoaren ingurutik. Herriak atera egiten dira, bestela hilda egongo bailirateke ”



“Garai honetan kulturartekotasuna da elkarrizketa sendotzeko aukera ematen duen elementua, deskolonizazioa baitakar”

eta ez soilik hedapen unibertsitarioaren arlora. Unibertsitateek ateak ireki behar dizkiete beste jakintza eta ezagutza batzuei, eta ez bakarrik paperean idatzitako jakintza zurrunari.

Unibertsitateek errespetatu egin behar dituzte herrien jakintzak, bai eta haiek berreskuratzen eta haiei balioa ematen lagundu ere, egungo eta etorkizuneko lanerako. Hala gertatzen da, adibidez, Afrikako jakintzekin: hainbat menderen ostean lur azpitik ateratzen ari dira, Senegalgo irakasle/ikertzaile batek esan zidan moduan. Beste hainbeste esan liteke jatorrizko indigenen jakintzaz. Unibertsitateek jakintza horien alde egiten badute, aberastu, zabaldu eta indartu egingo dute pentsamendu berri alternatiboa, historiari kopiari eta itsasteko ez baizik sustraiak aurkitzeko eta bizi sortzeko eta birsortzeko, kapitalismoaz haratago. Jakintza horiek murriztu, ehortzi eta ukatu egin dira luzaroan, potentzial emantzipatzailea dutelako, hain zuzen ere.

**Nicolás Herrera. Kapitalismoa gainditzeko eta jakintzak sortzeko prozesuan, zer ematen digute borroka feministek eta zer elkarrizketa ikusten dituzu jakintzaren ekoizpen hegemonikoaren eta feminismoen borroka politikoen artean?**

**Isabel Rauber.** Sustraietara joz ikus daiteke gizateria berreraikitzea posible dela, eta hortik ulertzen eta proiektatzen da feminismoak patriarkatuari dion arbuioa. Botere kapitalistaren hegemoniatik dator sistema patriarkal-matxista, non gizona nagusi eta emakumea mendeko izatea den boterea eraikitzeko tresna nagusia. Jakina, hori esklabismoan eta feudalismoan ere agertzen da, baina kapitalismoak areagotu egiten du.

Kapitalismoa gainditzeko errotiko prozesu oro deskolonizatzailea eta despatriarkalizatzailea da (aldi berean), eskubide guztiak aitortzera garamatza (Amalurren eskubideetatik hasita), eta geure burua izaki sozio-naturaltzat hartzera, bizi zatiezina baita. Hortik abiatuz, nortasun berriak edukiko ditugu, batzuek besteen gainean

duten nagusigoan oinarritu gabe eta aniztasunak errespetatuz, guztiok osotasunez bizi ahal izan gaitzen.

Nire ustez, beraz, feminismoak aipatzen duen despatriarkalizazioak, mota desberdinez haratago, zubiak egitea eta zati, errealtate eta kultura desberdinen arteko loturak ikustea eskatzen du. Horrek esan nahi du oposizio binarioetatik eta zatiketa estankoetatik haratago joatea, baina... pazientzia handia eduki behar da!

**Nicolás Herrera. Emango al dizkiguzu unibertsitateko lanean pentsamenduko eta ekintzako esperientzia emantzipatzaileak abiarazteko pista batzuk?**

**Isabel Rauber.** Munduaren aurreko jarrera horietan daude pistaak. Hortik abiatu eta beste subjektu batzuekin artikulatu behar dugu, berrikuntzak pentsatzeko eta sortzeko, eta alternatibak eraikitzeko. Ez dago errezeta egirik: errealtate bakoitza desberdina da eta herri bakoitzak bere historia, esperientziak eta jakintzak ditu. Aniztasun hori artikulatzea eta hortik hausnartzea da erronka.

Unibertsitatean ere posible da esperientziak abiaraztea eta alternatibak eraikitzen parte hartzea. Horretarako, ukonoz ukondo jardun behar da egunero bizimodua ateratzen dutenekin eta kapitalak sartu gaituen kinka larritik nola atera pentsatzen dutenekin. Unibertsitateak bizitzaren eta heriotzaren arteko kontraesan horretatik abiatu behar du, biziaren alde apustu egin eta esperientzia guztiak berreskuratu eta proiektatu, jakitera emateko ez ezik berriro artikulatzeko, proiektu alternatibo baten gidari gisa, haren handitasuna, zabaltasuna eta aniztasuna aitortuz. Izan ere, guztia ez da zatien batura, baizik eta ostertz bererantz doazen artikulazio askoren emaitza. Aspaldi adierazi zuen zapatismoak: “mundu guztiak sartzen diren mundu bat”.

Herri-intelektualok ideal eta zeregin horiek ditugu egunerokoan: guk geuk bizirik irautearekin batera, munduko izaki izatearekin batera –horrek ere bere osotasunera iritsi behar du–, prozesu alternatiboak iraunarazi, erein eta sendotu egiten ditugu. Pertsona guztiak gonbidatzen ditugu, intelektual izan ez izan, kapitalismoa gaindituko duen mundu bat bilatzeko ahaleginarekin bat egin dezaten.

Badakigu apustu historikoa dela, belaunaldien apustu bat, urte bat, bi edo hirutan lortuko ez dena. Ez dakigu horretarako denbora asko edo gutxi dagoen, baina etsipena ez da kontseilari ona. Eduardo Galeanoren hitzetan, “inpazientzia pazientziatsu” bat garatu behar dugu, sistematikoa eta jarraitua. Kapitalismoak mendeak daramatza errotuta, nortasunak eta pentsaerak finkatu ditu, eta horiek berrindartu eta birsortu egiten dute, modu “espontaneoan”; ezin dugu erauzi gure bizietatik, gure subjektibotasunetatik, dekretuz eta kolpe batez ezabatuta.

Esperientzia desberdinak, solidarioak eta kolektiboak pentsatu, eduki, mantendu eta partekatu behar ditugu, gure ekintza guztietan komunitatea sortuz, botere kolektiboak ematen digun zoriona eta osotasuna erakusteko.

**Nicolás Herrera.** Aipatu nahi al duzu azken ideien bat?

**Isabel Rauber.** Besterik gabe, eskerrik asko *Hariak* aldizkariari, Hegoa Institutuko hezkuntza-taldeari eta zuri, elkarrizketa honetara gonbidatu nauzuelako eta berriro mahai gainean jarri ahal izan ditudalako bizi osoan landu ditudan eta puripuruan dauden gai horiek, sistema kapitalistaren alternatibak bilatzeari buruzkoak.

“ Ez dago aurrez pentsatutako errezetarik, errealitate bakoitza desberdina delako eta herri bakoitzak bere historia, esperientziak eta jakintzak dituelako. Aniztasun handi hori artikulatzea eta handik pentsatzea, horixe da erronka ”



Nortzuk gara

- Movimiento Social y Político Congreso de los Pueblos

Hemen aurkituko gaituzue

- [www.congresodelospueblos.org](http://www.congresodelospueblos.org)

## Zer ez egin prestakuntza politikoan? Porroten dekalogoia

Ohar honen xedea da, batetik, prestakuntza politikoko prozesuen barruan jardunbide okerrak prebenitzeaz gainera, ikuspegi iraultzailea duten erakunde herrikoiak gonbidatzea prestakuntza-aren ardura har dezaten, eta, bestetik, ulertaraztea prestakuntzak ezinbesteko zeregina duela garai-penak lortzeko, kolpe gogorak saihesteko edo, nolana ere, horiek une egokian aurreikusteko.

Argitu nahi dut nire asmoa dela azpimarratzea zer ez litzatekeen egin behar prestakuntza politikoko prozesuetan eta praktika pedagogikoan bere horretan. Hau ez da egin beharko litzatekeenari buruzko dekalogoia. Izan ere, ildo eta planteamendu teorikoek ez dute soilik osatzen praktika pedagogikoa eta, kasu honetan, hezkuntza herrikoiak gidatzen duena; aldiz, guztiaren aurretik, etengabeko sormen- eta gogoeta-ariketa batek ere osatzen du, prestakuntza-prozesuak gauzatzen diren testuinguruak ez baitira beti berberak. Irakurtzeko eta egokitzeo ariketa, nagusiki, hitzok irakurtzen dituztenei uzten diet.

Azaltzen ditudan ideiak esperientzia akademiko, politiko eta antolakuntzako emaitza dira, eta Kolonia, Latinoamerika eta munduko beste leku batzuetako mugimendu herrikoien praktikan kokatzen dira. Jakina, esperientzia horietan inoiz ez ziren falta izan beste militanteekin kafez eta garagardoz gozatutako hitzaldiak; horiek amaitu zuten ideiak oinarritzen.

Hona hemen “arduragabekeria politiko-pedagogiko” deituko dudaren dekalogoia:

### 1. Prestakuntza murriztea eskola edo ikastaroetarako

Nahiz eta garrantzi berezikoak izan prestakuntzarako espazioak, prestakuntza erakundearen egitura eta ekintza-aren barruan onartzeko aukera ematen dutelako, ezin dugu ahaztu borrokaren, erakundearen zereginaren eta eguneroko bizitzaren babesean lortu dugula dakigunetik eta prozesu iraultzaileei mesede egiten dietetik asko. Era berean, ezin dugu alboratu erabiltzen ditugun metodo eta kontzeptuak “ez ditugula tiraderatik ateratzen”, behinola kide bati entzun nion moduan. “Inurriaren lana”, mobilizazioa, instituzioekin eginiko izapideak, edonolako arazoak konpontzea... Kontu horiek guztiek elikatzen dute esperientzia, eta, beraz, trebatu egiten gaituzte.

Beste bi dimentsio gehiago ere badaude, prestakuntza-ikastaroen funtzioetatik kanpo geratu ohi direnak: batetik, autoprestakuntza, prestatzaile garenon metodologiak eta gaiak aberasteko; bestetik, antolakuntza herrikoiak osatzen dituzten sektoreen euren barneko prestakuntza-prozesuak, aintzat hartuta horiek testuinguru desberdinetan parte hartzen dutela eta ekintza espezializatzea behar dutela.

### 2. Buruzagitza tartean ez sartzea

Buruzagitza tartean sartzea ez da soilik erakundearen prestakuntza-planen berri ematea hari. Kide maite batek zera esaten zidan: “buruzagitza ere prestakuntza eman behar du”. Buruzagitza-zereginak dituztenak hor daude, antolakuntza-lanarekin duten konpromiso handia erakustez gain,



beren prestakuntzaren une nahikoa aurreratuan daudelako. Errealitate horrek eskatzen die dimentsio guztietan partekatze beren ezagutzak eta esperientziak: ikastaroak erraztuz, tailerrak sustatuz eta beren egunerokotasuna partekatuz herriarekin eta erakundearen militantziarekin.

Prestakuntza politikoa ez da pedagogietan prestatzen direnen edo prestakuntza euren gain hartzeko prest daudenen zeregina bakarrik. Prozesu iraultzaileekin konprometitzea da proiektuak eskatzen duen zeinahi zeregin onartzeko prest izatea. Prestakuntzarako denborarik ez izatea ez da aitzakia; hala izanez gero, onartuko genuke gizarte-erlaketarako denborarik ez dagoela.

### 3. “Ludismoa”<sup>1</sup> eta konpota-metodologiak

Pertsona askok gurekin parte hartu zuten prestakuntza-prozesuak aurrera eramaten, eta ez zuten izan erdi- edo goi-mailako hezkuntzarako sarbiderik; halere, ezin dugu auresuposatu ez dakitela ezer, edo dena infantilismoekin edo soilik ludikoen bitartez azaldu behar zaiela.

Jendeak ulertzen ditu prestakuntza politikoko zereginak gauzatzen ditugunok ere ez dakizkigun gauzak. Ez da ezdeusa politikari eta gizarte-arazoei buruz duten ezagutza. Jendea jakitun da bere egunerokotasuneko askok duela zerikusia gobernatzeko duenak egiten duenarekin edo egiten ez duenarekin. Kasu horretan, gure zeregina izango litzateke azaltzea bi kontuak nola eta zergatik erlazionatzen diren, baina baita analisi-mota horiek pertsonengan sustatzea ere.

Ikastaro eta tailerren metodologiak ludiko hutsera murrizteak, “tailerra edo eskola atsegina egiteko” aitzakiapean, eta horri “hezkuntza herriko” deitzaiek prestakuntza politikaren helburuetako bi itxuragabetzea eragiten du, hezkuntza herrikoaren ikuspegitik bertatik: bat, etengabeko gogoeta-prozesua, menderatzeen sistema desmuntatzeko; eta bi, oinarritzeko antolakuntzaren eraikuntza (Peloso, 2005). Horrekin ez dut esan nahi prestakuntza politikoko prozesuetan ludikoak

1 Testuak “ludismotzat” jotzen du prestakuntza politikoko prozesuen barruan ludikoa dena neurrigabe erabiltzea. Ez du zerikusirik artisau britainiarren mugimendurekin; haiek industria-iraultzaren ondorioen aurka borrokatu ziren, makinak sabotatu eta suntsitzaren bitartez.



Mateo Vidalek utzitako irudia.

ongiotorriak ez direla, baizik eta horiek gogoeta ahalbidetzeko xedea izan behar dutela.

Helburua da beren errealitateari buruz gogoeta egingo duten pertsonak trebatzea, eta horrek nolabaiteko eskakizun- eta ahalegin-maila bat eskatzen du. Gaiei dagokionez eta teorikoki hitz eginda, “dena mastekatuta ematea” da “konpota-metodologia” deitzen diedana egitea; hots, onartzea pertsonak etengabe haurtzaroan daudela.

### 4. Hizkuntza teknizista eta “harenga”

Aurreko puntuaren aurkako muturra da hau. Prestakuntza politikoa gauzatzen duenaren zeregina da etengabeko gogoeta sortzea, ez hura kontzeptu eta harengaren kode ulertzein bihurtzea, prestakuntzaren hartzaileei ezer esaten ez dietenena.

Beharrezkoa bada ere prestatzaileok ondo maneiatzea kategoriak eta terminoak, elementu horiek ulertzeko moduko hizkuntzan eman behar zaizkie sektore herrikoiei, nagusiki trebatzen ditugunei. Horri kasurik ez egiteak eta teknizismo akademikoak gehiegi erabiltzeak sektore haiengandik urruntzea dakar, hau esango baitiegu: “begira, nik dakidan guztia dakit unibertsite batera joan nintzelako, eta zu ez”.

Bestalde, sumindura elikatzea besterik ez da diskurtsoa harenga edo kontsignetara murriztea (hori ere beharrezkoa), baina ez du gure errealitatearen eta bertan parte hartzen dutenen analisi kritikorik egitea ahalbidetzen. Adibidez, badakigun zer bait

da soilik esatea Estatuak zapaldu, gure eskubideak urratu eta gure bizitzak erasotzen dituela. Xedea da deskribatzea, ahalik eta xehetasun handienaz, estatu horren jokabidea, gu zapaltzeko, gure eskubideak urratzeko eta gure bizitza erasotzeko zer ekintza eta zer elementu baliatzen dituen eta nola egiten duen. Azken finean, helburua da trebatzen ditugun pertsonak ariketa bera garatu ahal izan dezaten lortzea.

## 5. Erromantizatzea eta gatazka saihestea

Hain zuzen ere, prestakuntza politikoko prozesuen ideia da bai prestatzaileek, bai prestatze-bidean daudenek kritika ona egiteko gaitasuna garatzea, ez bakarrik mendekotasunen sistemari dagokionez, baita gure praktika propioari dagokionez ere.

Herriak, kide garen erakundeek eta guk geuk ere, gizabanako gisa, huts egiten dugu. Horrenbestez, ulertu behar dugu antolakuntza herrikoietan egin eta gertatzen den guztia ez dela defendatzea, ezkutatzea edo, kasurik okerreanean, txalotzea. Herriak pentsatu edo egiten duena ez da halabeharrez zuzena. Horren lekuko dira historiako gobernatzaileak maltzurrenak, “demokratikoki” hautatuak.

Bestalde, prestakuntza-prozesu askotan, prestatzen direnei ez zaizkie beren hutsegiteak agerian uzten maiz, eta aitzakia izan ohi da “giro ona mantentzea”. Baina, hain zuzen ere, prestakuntza politikoa hezkuntza herrikoitik lantzen bada, borroka-ariketa bat da, gure bizitzetan natural bihurtu eta une hartara arte zuzentzat jotzen genuen artean. Bestela, zertarako egin ahalegina prestakuntza-prozesuetan, pertsona kritikoak prestatzeko ez bada?

## 6. Beharren gaintik gustuak jartzea

Prestakuntza-ikastaroetako gaiak zehazteko, aintzat hartu behar ditugu bizi dugun errealitatea, hartzaileak, baliabide eskuragarriak eta, nola ez, lanean ari garen erakundearen beharrak.

Prestakuntza-gune edo -ikastaro askotan egon edo laguntzen aritu naiz, baina, tamalez, inguruko errealitatearekin loturarik ez duten gaiak eta edukiak ematen dira. Berezi oroitzen dut nire erakunde lan-taldean egiteko ekitaldi bat. Egun batez, lan neketsua egin ondoren, lankide batek gaez “lana bideratzeko” hirurogeita hamarrek hamarkadako dokumental bat jarri zuen: Txileko langileen borrokari

buruzkoa zen. Lantzen ari ginen gaiarekin inolako loturarik gabe! Bertan zeuden pertsonak etxebizitza-eskubidearen aldekoak ziren, asko nekazari ibiltariak, enplegu informalekin eta askotan erdi-mailako hezkuntzara iristeko aukerarik gabe. Halako desfasea zela eta, gehienek ez zioten arretarik jarri, joan egin ziren, edo, nire kasuan bezala, logura eragin zigun.

Prestakuntza-prozesuak erakundearen behar guztiak konpondu ez arren, ez dira aldendu behar asmoetan, gaietan, edukietan eta metodologietan.

## 7. Hermetikotasun kognitiboa eta metodologikoa

Noiz edo noiz, gertatzen da gai bat menderatzen hasten garenean ez dugula beste batzuek prestatzeko ardura hartzen, nahiz eta prestakuntza-prozesuetan beharrezkoak diren. Aitzakiak jartzen dira pertsona berberak gai berak emateko: “nik gai horri buruz ez dakit asko”, “generoaren gaiari buruz dakiten lankide-emakumeek ematen dute”, “zertarako ikasi behar dugu hori, jendeak ez badu ulertuko?” Azkenekoarekin, nire lankide batek honako hau zioen: “hori esaten duenak ez du irakurri nahi”. Norberarengan izandako konfiantzaz edo interesaz kanpo, arrazoia da pribilegioa bera zalantzan ez jartzea. Hala ez bada, zergatik kostatzen zaigu zeharkatzen ez gaituzten beste menderatze-forma batzuen inguruan ikastea? Adibide bat jartzeko besterik gabe.

Alderdi hori da nik “hermetikotasun kognitiboa edo metodologikoa” deritzodanaren zati bat. Hala, gai batzuetara lotzen gara, eta baztertu egiten dugu norberarenak ez diren ildo ideologikopean planteatutakoa; erabat gaitzesten da akademia; beste identitate batzuk mespretxatzen dira belaunaldiz belaunaldi, beste esperientzia batzuk, eta, oro har, dogmatismoan erortzen gara. Akats horrek itsutu egiten gaitu, prestakuntza-prozesuaren eta erakundearen barruan zenbait arazotarako konponbide anitz izateko eta oraingo eskaerekin ez eguneratzeko.

Prestatzaileok prestakuntza politikoaren eskaerak ulertzeko beharra eta erantzukizuna dugu, eta, gainera, prestakuntza-prozesuetan parte hartzen dutenei komunikatzeko gaitasuna izan behar dugu. Arrazoi nabarmen bat dago: inork gai bat ezin hobeki menderatzen ez duenean, lantzeari utziko diogu? Entziklopediak, liburutegiak, Internet eta datu-baseak daude. Ez dago aitzakiarik!

## 8. Nortasuna ahaztea

Ezin dezakegu ahaztu nortzuk garen eta nondik gazozen, ez eta konprometituta gauden proiektu eraldatzailea ere. Horretan, zeregin nagusia izan dute eraiki dugun nortasunak eta haren elementuek, eta ez dira estetikora edo materialera murrizten. Herentzian hartu ditugun prozesuez eta gertaerez hitz egiten dute aginduak emateak, dagoeneko ez daudenak oroitzeak edo gure elementu sinbolikoekin eremu fisikoak egokitzeak, eta oraindik horiek dira gure iturburu. Prestatzen ditugun pertsonak horiez blaitu behar ditugu, erakundeen ahotsa izango baitira munduaren aurrean.

## 9. Esperientzia ez sistetzea

Kontua ez da bakarrik prestakuntza-prozesuak erregistratzeko material guztia ordenatuta gordetzea (errelatoretzak, argazkiak, bideoak, etab.). Helburua da hori guztia intsumo bat izatea beste prozesu batzuetarako eta, bide batez, akatsak zuzentzeko, indarrak aprobetxatzeko eta etorkizuneko belaunaldiei egindakoaren ikuspegia emateko, prozesu sofistikatuagoak eraiki ditzaten. Horrez gain, prestakuntza-esperientziak sistematizateari esker, beste intsumo batzuk jasotzen dira antolaketa-lana bera elikatzeke.

Gure esperientziak sistematizatzen ez ditugunean, gure ikaskuntzak etenda gelditzen dira denboran, eta prestakuntzak prozesua izateari uzten dio.

## 10. Dena jakin behar dela sinestea

Prestatzen ditugun pertsonak gugandik asko espero dute, baina onartu behar dugu ez dakigula guztia, gai ezezagunak ditugula. Halakoetan, bidezkoa da esatea “ez dakit”. Gaia “gidatze hutsagatik” ez dugu zertan bide onetik joan; alabaina, arduragabekeria handia da, eta luzera prestatzen ditugun pertsoneri eta gure erakundeari berari eragiten die. Baliozkoa da ez jakitearen eskubidea, eta zertan indartu behar dugun identifikatzeko aukera emango du.

### Azkenik...

Arduragabekeria politiko-pedagogiko horietan ez erortzeko, gaitasuna izan behar dugu hausnarketarako, kritikarako eta autokritikarako. Gaitasun hori, aldi berean, esperientziarekin eta gure balioak praktikan jartzearekin heltzen da. Prestatzaile gisa, izugarritzko erantzukizuna dugu historiarekin. Egindako askok edo egin gabekoek etorkizunean eraldaketa handiak gauzatzeko aukera baldintzatuko dute. Ashé asko!

### Erreferentziak

Peloso, R. (2005eko maiatzaren 31). *Consideraciones sobre la formación (esquema sin pretensión de texto)*. Rebelión. <<https://rebellion.org/consideraciones-sobre-la-formacion-esquema-sin-pretension-de-texto>>.

Mateo Vidal León

Caucako Unibertsitateko (Kolonbia)

Antropologiako ikaslea eta Herrien Kongresuko Gizarte eta Politika Mugimenduko kidea



Irudia: Marina Gallardo.



**Nortzuk gara**

- Ingurumen Pentsamenduaren inguruko diplomaturā, “Gonzalo Palomino Ortiz” Katedra

**Hemen aurkituko gaituzue**

- <http://fce.ut.edu.co/programas-ft/educacion-continuada/diplomados/diplomado-de-formacion-ambiental-ciudadana.html>

## Bai bizitzari: Unibertsitate-hedakuntza emantzipatzailea. Hainbat ikaskuntza Kolonbiako Tolima departamentutik

Lurralde Kritika Unibertsitate Hedapena (ExUCT)<sup>1</sup> lan-eremu pedagogikoa da, helburu duena Unibertsitatearen, ingurumen- eta lurralde-mugimenduen eta bizitzaren askotariko alderdien arteko ezagutza artikulatua eraikitzea eta gizartean zabaltzea. Kolonbian, eta zehazki Tolima departamentuan, hainbat hamarkadatan, biztanleriak ikusi du lurra sistematikoki kendu dizkiotela eskuetatik, indarkeria nahiz erauzketa-kapitala handitzeko proiektuaren ondorioz. Gaur egun, ekosistemaren jasangarritasuna galdua dago, desertifikazio-fenomenoengatik, ur-faltagatik eta teknologiaren erabileragatik (nekazaritzako gai kimikoak, transgenikoak eta gehiegizko mekanizazioa) eta, dagoeneko, ezinezkoa da gutxieneko bizi-baldintzei eustea. Testuinguru horretan, gizarte- eta ingurumen-sarea birsortzeko eta bertako haziak babesteko hainbat prozesu sortu dira, eta haiekin batera, kohesioa ematen duten eta sistema tradizionalen berrezarpena sustatzen duten instituzioen eta antolatzeke moduen sare bat ere bai. Tolima departamentuaren erronka handienetako bat da herritarrak etengabe egokitzea lurraldearen aldaketen eta ahalmenen arabera.

1 Artikuluaren egileak sortutako terminoa, unibertsitate-hedapena lurraldeetatik eta lurraldeentzat, testuinguru jakin batean, pentsatzeak duen garrantzia adierazteko.

Errealitate horren aurrean, 2013an, “Gonzalo Palomino Ortiz”<sup>2</sup>. Ingurumen Prestakuntzako Diplomatura sortu zen. Lurraldean oinarritutako programa politiko-hezitzaile honek aukera eskaintzen die lurralde-prozesuekin eta -ekimenekin konprometitutako tokiko eragileei, ikaskuntzarako eta ezagutza trukatzeko gune batean parte hartzeko. Prestakuntza ekologikoaren helburu nagusia da erauzketa-kapitalik gabeko lurraldeetan bizitzeko komunitateek behar dituzten gaitasunak eskuratzea. Proposamen hori, gaur egun, lau mailatan aurkezten da, “Gizarte Lidergoetako Prestakuntza Eskolarekin”<sup>3</sup> batera.

1. maila. Ingurumen- eta lurralde-kudeaketa: erauzketa-industria, gatazka ekologikoak eta lurralde-kudeaketa.
2. maila. Lurralde-azterketa, ingurumen-gatazkak eta gizarte-mugimenduak.

2 Tolimako Unibertsitateko Herritarren Ingurumen Prestakuntzako Diplomatura: <<http://fce.ut.edu.co/programas-ft/educacion-continuada/diplomados/diplomado-de-formacion-ambiental-ciudadana.html#requisitos>>.

3 Gizarte Lidergoetako Prestakuntza Eskola Bizitza Defendatzeko Batzordeko kide da eta haren bidez ematen ditu saioak facebook plataforma digitaletik: <[www.facebook.com/oficialcomiteambiental/?ref=page\\_internal](http://www.facebook.com/oficialcomiteambiental/?ref=page_internal)>.

3. maila. Natura eta kultura: gizarte-erronkak lurralde-lidergoak eraikitzeko.

4. maila. Krisi klimatikoa: ibilbidea eta erronkak eztabaida publikoan, akademikoan eta politikoan / Herrirentzako bidezko trantsizio energetikoa.

Diplomaturak elkarrizketa eratzen du unibertsitatearen, lurralde- eta ingurumen-mugimenduen, komunitateen eta naturaren artean. Jakin-minetik, errespetutik eta ulerberatasunetik, bestelako kontaera eta praktikak eraikitzeko aukera eskaintzen du, haien ardatzean kokatuz kultura, lurralde-sistemak eta sistema ekologikoak.

2017an sortu zen, Tolima departamentuan, "Alianza por la Agrobiodiversidad"<sup>4</sup>, izeneko, departamentu horretako komunitate eta lurraldeentzako itxaropenezko egitura, askotariko erakundez osatua. Hauek dira lurraldeko erakunde adierazgarrietako batzuk:

- Erakunde indigenak: Asociación de Cabildos Indígenas de Tolima (ACIT), Asociación de Autoridades Tradicionales del Consejo Regional Indígena del Tolima (CRIT), Asociación de Resguardos Indígenas del Tolima (ARIT) eta Federación de Indígenas de Cabildos Autónomos del Tolima (FICAT).
- Emakumeen elkarteak: Asociación para el Futuro con Manos de Mujer - Asfumujer eta Manos de Mujer.
- Meatzari txikien elkarteak: Asociación de Mineros Artesanales del Tolima eta Asociación Pequeños Mineros del Sur del Tolima.
- Unibertsitatea: Tolimako Unibertsitatea (Zientzia Fakultatea, "Ingurumen Behatokia" eta Hezkuntza Fakultatea, "Gonzalo Palomino Ortiz" katedra).
- Lurralde- eta ingurumen-taldeak (Kolonbiako eta beste herrialde batzuetako gobernukoak nahiz gobernuz kanpokoak): Comité ambiental por la defensa de la vida, Corporación SOS ambiental, Comité ambiental del Norte del Tolima, Grupo de semillas, Programa Ambiente Colombia del Ministerio del Medio Ambiente, Cooperación Económica y Desarrollo de Alemania (GIZ), Cortolima,

ExUCT zentroak aukera hauek eskaintzen ditu:

- Tokiko komunitateen hezkuntza-prozesuak indartzea.
- Erauzketa-industriaren kapitalismoari aurre egiteko tokiko ekoizpen-proposamenak sortzea.
- Ezagutza teknikoak, ingurumenekoak eta zientifikoak ikasteko prestakuntza holistikoa garatzea.
- Lurraldea defendatzeko tresnak hornitzea.
- Politika publikoetan eragitea.

Gobernación del Tolima, Asociación de Usuarios del Distrito de Adecuación de Tierras de Gran Escala del Río Saldaña (Usosaldaña), Instituto Humboldt eta Gernika Gogoratuz (Euskal Herria).

Erauzketa-industriak lurraldeetan eta klimaldaketan duen eraginaren ondoriozko baldintza ekologiko itxuraz itzulezinei aurre egin nahian, Tolimako Departamentuak -erakunde komunitarioen bidez- lurraldeentzako plan ekologiko bat aurkeztu du, "jarduera aniztasuna" eta bakearen eraikuntza kontzeptuetan oinarritua. Funtsezkoa da aipatzea ezen, eragile politiko eta sozialen aniztasun horretan, nekazarien eta indigenen erakundeen presentzia funtsezkoa izan zela Unibertsitatearen eta gizarte-mugimenduen arteko artikulazioa indartzeko. Hiritarren Ingurumen Prestakuntzako Diplomaturaren 1. mailan, parte-hartzaileek estrategiak planifikatzen eta garatzen ikasten dute; esate baterako, ekoizpen-sistemak berrosatzea, hazi autoktonoen trukea, gizarte-mobilizazioa eta lurralde-erresistentzia. Galdera konplexu eta globalei erantzuten diete, hala nola: nork elikatzen du mundua? Nork kontrolatzen du planetako elikadura-sistema? Gainera, agerian uzten du, bai nazioarteko bai tokiko mailan, nola manipulatu den hazien erabilera, akordio, hitzarmen eta legeen bidez.

Unitate pedagogikoetako baten helburua da lurraldearen kontzeptua zabaltzea. Esparru

4 Alianza por la Agrobiodiversidad: <<https://alianza.porlaagrobiodiversidad.semillas.org.co>>.



Iturria: Comité ambiental en defensa de la vida.

horretan, Pijao komunitate indigenek, Tolimako hegoaldetik, lurralde-kudeaketako prozesuen bidez ezartzen dituzten proposamenek erakusten dute nola aurre egiten zaien desertifikazio-prozesu azkarrei, Kolonbiako klima-aldakortasun handiko, herritarren arteko desberdintasun handiko eta Estatuak bazter utzitako eskualde batean. Curriculumak komunitateekin batera antolatze horrek kontra-kontakera bertsuetatik aukera ematen du. Toliman, eragileen arteko elkarrizketa horrek bertako indigenen haziak herrien ondasun komun gisa aintzat hartu eta babesteko, defendatzeko eta sustatzeko prozesuak indartu ditu.

Antolaketa-testuinguru horretan, emakumeen rola eta haien lurralde-esperientzia ezinbestekoak dira ekologia leheneratzeko, kultura-kontserbaziorako eta bizitzarako, eta alde horretatik, funtsezko eragileak izan dira Diplomatura eraikitzeo. Emakumeek rola berrakigarri dute komunitateetan: haiek biltzen dute euritako ura, eta biodibertsitatea babestu eta higadura murrizten duten estrategiak sustatzen dituzte. Gainera, bertako landareen hazien banku bat kudeatzen dute, bertako kultura eta baliabide naturalak zaintzeko helburuarekin.

ExUCTko hezkuntza-programek, partaidetzako proiektioarekin, aukera ematen dute ingurumen- eta lurralde-arloetan lortu diren kompetentziak koherenteak diren ekintzak aktibatzen lurraldean. Diplomaturak aukera ematen die komunitateei beren identitateak eta ohiko jardueretatik, ingurumen-aldaketei aurre egiteko erresistentzia-prozesuetatik eta lurraldeetan egiten duten eguneroko lanetik sortutako epistemologiak zabaltzeko, "alderantzizko hedapena" eginez (Boaventura, 2006). Unibertsitatearen eginkizun estrategikoa da ezagutza eta esperientzien sarea zabaltzea, ikerketa parte-hartzaileko prozesuak eta ekintza juridikoak eta eragin politikokoak sortzeko, lurralde-garapenerako politika publikoak eraldatzea dela helburu. Komunitateen ezagutza, beren esperientzia, testuinguru eta lurraldeetatik abiatuta, indartzen jarraitzeko espazioak eskaintzea eta espazio horiek unibertsitatearen beraren politikaren eta egituren aldaketan eragitea ezinbestekoak dira.

Ikuspegi horretatik, funtsezkoa da ExUTC (Lurralde Kritika Unibertsitate Hedakuntza) irekitzea ikerketa-praktika konprometitua eta ez-erazlea lantzeko, beste batzuekin batera eraikiz eta lurral-



deen ezagutzak aintzat hartuz. Imajinatzen dugun unibertsi-tate-hedapenak konplexutasunaren ikuspegitik lan egiten du, diagnostiko parte-hartzaileak egiten ditu, lurraldeko gizarte-eragile anitzekin kontrastatutako hipotesiak lantzen ditu, arazoak eta ahalmenak identifikatzen ditu, alternatiba posibleen gainean (teorikoak eta praktikoak) eraikitzen eta hausnartzen du, eta ondorioak ateratzen ditu.

Herritarren Ingurumen Prestakuntzako Diplomatutarak aukera eskaintzen du, unibertsi-tatearen eta gizarte-mugimenduen arteko artikulazio-ahalmena nabarmentzeko ez ezik, gai eta ikuspegi globalak lantzeko ere, esaterako, biodibertsitatea, agroekologia, lurralde-defentsa, klima-aldaketa, elikadura-burujabetza, antolaketa politikoa eta gizarte-mobilizazioa. Lurralde Kritika Unibertsitate Hedapenaren ikuspegi horretan sakontzeko gonbita egiten dugu, unibertsi-tatean hezkuntza

emantzipatzailearen proposamena lurraldeko gizarte-mugimenduekiko elkarrizketatik abiatuta gauzatzeko prozesu interesgarria delakoan.

## Erreferentzia

Lischetti Ortiz, M. E., & Petz Martín, I. L. (2021). Antropología y Extensión Universitaria. Producción de conocimiento y procesos formativos en Articulación Social. Hemen eskuragarri: <<https://rodin.uca.es/bitstream/handle/10498/26115/8474-Texto%20del%20art%C3%ADculo-39426-1-10-20211209.pdf?sequence=1&isAllowed=y>>.

Mar Pulido Vicente  
Doktoregaia Garapenari buruzko Ikerketetan  
(Hegoa Institutua)



Iturria: Comité ambiental en defensa de la vida.

# begirada konprometituak

zinema  
dokumentalak

**Izenburua:** Estado de malestar

**Lekua, urtea:** Katalunia, 2019

**Ekoizpena:** LOOP Barcelona

**Zuzendaritza:** María Ruido

**Iraupena:** 63 minutu



**Laburpena.** Ondoeza eta gaixotasuna informazioaren gizartean, horixe da María Ruidok ikusizko saiakera honetan jorratzen duen gaia. Aldi batez antidepressiboak kontsumitzera eraman zuen pasarte autobiografiko batetik abiatuta (artistak azaltzen duen bezala, «porrot batetik» abiatuta), dokumental bat egin du, tesi bat indartzen duena: osasun mentalean ere, pribatua den guztia publikoa ere badela. Munduan (eta, bereziki, gaizki deituriko lehen munduan) botikarik errezetatuenetako bat hartzen duten beste pertsona batzuek bezala, bizitza-esperientzia pertsonal gisa bizi izan zituen bere ondoeza eta tristura, baina, ondoren, Mark Fisher kritika kulturalerako irakasleak idatzitako “Realismo kapitalista: ¿no hay alternativa?” (Errealismo kapitalista: ez dago alternatibarik?) saiakera irakurrita, ulertu zuen erregimen kapitalistak bizitza kudeatzeko inposatutako sistema baten ondorioa dela bizipen pertsonala (MACBA, Bartzelonako Arte Garaikidearen Museoa).

Hemen eskuragarri: <[www.youtube.com/watch?v=I92axP2uifY](http://www.youtube.com/watch?v=I92axP2uifY)>.

**Izenburua:** Fraguas - Dokumental

**Lekua, urtea:** Gaztela-Mantxa, 2018

**Zuzendaritza eta ekoizpena:** Irene Powers Rodríguez, Raquel Vargas Garrido eta Alberto León Sáez

**Iraupena:** 17 minutu



**Laburpena.** Erreportaje-dokumental honetan, Fraguas izeneko herri okupatu eta berreraikian sartuko gara, bertako pertsonaien begiradaren bidez. Haien historiaren narrazioan, bizi duten egoera legalaren dramatismoa ezagutuko dugu, baina baita haien nahiak, ametsak eta proiektuak ere. Protagonisten eskutik, neorruralitatearen prozesu demografiko interesgarria ikusiko dugu, horren karga politikoa eta Estatutik kanpo proiektu bat eraikitzean sortzen diren gatazkak.

Fraguas herriak agenda mediatikora jauzi egin zuen, bertako biztanle berriek epaiketa bati aurre egin behar izan ziotenean. Epaiketa horretan, Gaztela-Mantxako Juntak lau urteko espetxe-zigorra eskatzen zuen haientzat. Komunikabide handiek albistearen berri eman zuten, baina ez zuten sakondu zer zen Fraguas, Erakundeak mehatxatutako herri bat izateaz gain. Fraguas - Dokumental lanean, historia sakonago bat landu nahi da, hainbat alderdi jorratuz: 60ko hamarkadan Estatuak egindako desjabetzeak, lurra berreskuratzea, autonomia, autoantolaketa, ekologia, sareen eraikuntza, komunitate baten sorrera eta erresistentzia (Todo por Hacer, hileroko argitalpen anarkista).

Hemen eskuragarri: <[www.todoporhacer.org/documental-fraguas](http://www.todoporhacer.org/documental-fraguas)>.

## argitalpenak

**Izenburua:** Extensión crítica en tiempos de pandemia. La coyuntura de los movimientos sociales ante la emergencia

**Biltzaileak:** Humberto Tommasino, Juan Manuel Medina, Luis Barreras eta Maximiliano Toni

**Lekua, urtea:** Rosario, 2022

**Argitaletxea:** Humanidades y Artes Ediciones



**Laburpena.** *Liburu hau, «Extensión crítica en tiempos de pandemia: La coyuntura de los movimientos sociales ante la emergencia», analisi-ziklo gisa pentsatu zen. Horretan hainbat jende bildu nahi izan zen: erreferente akademikoak, gizarte-mugimenduetako eragileak, hedapen kritikoa proposamen teoriko-metodologiko eta politikoarekin lotutako erakundeak. [...] Zikloaren helburuen artean, zenbait esperientzia partekatzea pentsatu zen; honako hauek hain zuzen ere: konpromiso militantetik abiatuta, kolektiboa-herrikoa denaren indarra sustatzen jarraitzen duten esperientziak, prestakuntza edo ezagutzen koprodukzioa sustatzen dutenak, gure herrien jakintzarekin harremanean. Harreman dialogiko horrek adierazten du zeinen garrantzitsua den unibertitateak gizarte-konpromisoa izatea honako hauekiko: batetik, parte-hartezko ikerketa-ekintzako metodologiekiko; bestetik, herri-sektoreekin jakintzei buruzko elkarrizketa izatearekiko, eskubideak bete-betean gauzatzeari dagokionez. Horren ondorioz, hezkuntza-ekintzari esanahi berria eman behar zaio, integraltasunak kontuan hartuta, eta ikasleak izanda munduko adierazpen berrien eragile (Elkarrizketa Zikloaren Sarrera/Aurkezpena, biltzaileak).*

Hemen eskuragarri: <[www.hyaediciones.com/wp-content/uploads/2023/06/Extension-Critica-en-tiempos-de-pandemia.pdf](http://www.hyaediciones.com/wp-content/uploads/2023/06/Extension-Critica-en-tiempos-de-pandemia.pdf)>.



**Izenburua:** Marta Lamas: dimensiones de la diferencia. Género y política: antología esencial

**Egilea:** Marta Lamas; Gabriela Méndez Cota, koordinatzailea

**Lekua, urtea:** Buenos Aires Hiri Autonomoa, 2022

**Argitaletxea:** CLACSO

**Laburpena.** *Zer dira, zehazki, maskulinitatea eta feminitatea, gizon eta emakumeak hainbesteko krudelkeriaz suntsitzen dituztenak, gizarte-ehuna desagertzearaino urratzen dutenak, etorkizunari bidea ixteko mehatxua egiten dutenak? Marta Lamasen oinarritzko idazkien antologia hau galdera horri hainbat ikuspegitatik erantzuten saiatzen da, eta, aldi berean, Latinoamerikako ikerketa feministak gizarte-zientzietan eta humanitateetan duen benetako eraginaren mapaketa eta balantze kritikoa egiten du. Egilea mugimendu feministaren eta emakumeen eskubideen aldeko ahots adierazgarrienetako bat da Mexikon eta Latinoamerika osoan. (CLACSO).*

Hemen eskuragarri: <[www.clacso.org/wp-content/uploads/2022/05/Marta-Lamas.pdf](http://www.clacso.org/wp-content/uploads/2022/05/Marta-Lamas.pdf)>.

## erakundeak

**Kolektiboaren izena:** Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos

**Eragin-eremua:** El Salvador, Guatemala, Honduras, Mexiko eta Nikaragua

**Webgunea:** [www.im-defensoras.org](http://www.im-defensoras.org)



**Borrokaren idealak.** *Giza Eskubideen alde diharduten Emakumeen Erdialdeko Amerikako Ekimena (GEen alde diharduten EAko ekimena) 2010ean hasi zen lanean, Erdialdeko Amerikan giza eskubideen alde ziharduten emakumeen aurka indarkeria areagotzen ari zela-eta, arazo horri eskualde-mailan erantzun integrala emateko. Gaur egun, gizarte-erakunde eta -mugimenduetan giza eskubideen alde diharduten emakumeak bildu nahi ditu, haien artean babes- eta elkartasun-sareak indartzeko eta giza eskubideen alde egiten duten lanaren ikusgarritasuna, aintzatespena eta inpaktua areagotzeko.*

*GEen alde diharduten EAko ekimena bultzatzen dugun erakundeok babes feminista integralerako alternatibak diseinatu nahi ditugu, emakumeen aurka eskualdean dagoen diskriminazio-testuingurua kontuan hartuko dutenak, giza eskubideen alde diharduten emakumeek beren lanagatik pairatzen duten indarkeriari erantzun ahal izateko, eta beren zereginekin jarraitu ahal izan dezaten, segurtasuneko, berdintasuneko eta ongizateko baldintzetan (Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos).*

**SOMOS MUCHAS**  
Por la libertad y vida de las mujeres

**Kolektiboaren izena:** Somos muchas. Por la libertad y vida de las mujeres

**Eragin-eremua:** Honduras

**Webgunea:** [www.somosmuchas.hn](http://www.somosmuchas.hn)

**Borrokaren idealak.** *Asko gara. Emakumeen askatasunaren eta bizitzaren alde plataforma 2016an sortu zen, Zigor Kode berriari buruzko eztabaiden esparruan, abortuaren despenalizazioa lortzeko Hondurasko Kongresu Nazionalean eragiteko asmoz. Plataformak hiru kasutan eskatzen zuen abortuaren despenalizazioa: haurdunaldia sexu-bortzaketa baten ondorio denean; haurdunaldiak haurdun dagoen emakumearen osasuna edo bizitza arriskuan jartzen duenean; eta haurrak malformazio larriak dakartzanean, bizitzarekin bateraezinak direnak.*

*Gure hastapenetatik aurrera, erabakitzeko eskubidearen aldeko hainbat ekintza eta estrategia garatu genituen Hondurasen. Bidean, hiru egoeratan abortua despenalizatzearen aldeko borroka eraldatzen joan ginen, emakumeen askatasunaren, autonomiaren, osasunaren eta bizitzaren aldeko apustu feminista baterantz; hortaz, abortuaren despenalizazio sozial eta legalaren bila, Hondurasen mugimendu feminista sendo bat eraikitzearen alde egin genuen. (Somos muchas. Por la libertad y vida de las mujeres).*



ezinbesteko  
agenda

**Ekitaldia:** Vigilancia ciudadana para el cambio social: herramientas para no morir en el intento

**Deialdia:** Coordinadora de Organizaciones para el Desarrollo - Espainia

**Lekua, urtea:** Madrilen, 2023ko urriaren 19an eta 20an

**Informazio gehiago:** [www.coordinadoraongd.org/formacion/cursos/vigilancia-ciudadana-para-el-cambio-social-herramientas-para-no-morir-en-el-intento](http://www.coordinadoraongd.org/formacion/cursos/vigilancia-ciudadana-para-el-cambio-social-herramientas-para-no-morir-en-el-intento)



*Ikastaro honek herritar-zaintzaren kontzeptua eta tipologiak aurkezten dizkigu, eta hainbat eduki eta tresna eskaintzen ditu botere publikoen jardueraren eta informazioaren jarraipena egin ahal izateko. Garapen jasangarrian, kalitate demokratikoan eta justizia sozialean eragin zuzena duten politiketara bideratuta dago bereziki. Helburuak:*

- *Ikuspegi zabala eta eguneratua eskaintzea, bai maila globalean, bai estatuan eta bai tokian-tokian herritar-zaintzaren arloan dauden tipologiei buruz, bai eta teknologiari esker sortutako aukera berriei buruz ere.*
- *Herritarrek botere publikoen jardueraren monitorizazio-lanak egiten hasteko dituzten oztopo ohikoenak ezabatzea.*
- *Hainbat tresna eta metodologia eskaintzea, parlamentuko informazioa eta kontratuen eta dirulaguntzen datu-baseak eskuratzeko eta aztertzeko, eta informazio publikoa eskuratzeko eskaerak erregistratzeko (Coordinadora de Organizaciones para el Desarrollo).*



**Ekitaldia:** “Energia-komunitate bat eraikiz” jardunaldiak

**Deialdia:** Mugarik Gabeko Ingeniaritza / Ingeniería Sin Fronteras

**Lekua, urtea:** Basoa Etxean (Artea), 2023ko irailaren 16an eta 17an

**Informazio gehiago:** <https://euskadi.isf.es/blog/topaketa-komunitate-energetiko-bat-eraikitzen/?lang=eu>


*Ba al duzu Energia Komunitateen berri? Kontzeptu hori gero eta leku gehiago ari da hartzen eztabaidaguneetan; izan ere, funtsezko atala da energia-eredu berriztagarri, deszentralizatu, kontziente/arduratsu eta bidezkorako trantsizioan. Baina, gainera, figura juridiko ireki eta parte-hartzezko gisa planteatuta, gure energia-baliabideen desberdintasunen eta erabilera irrazionalaren konponbidea izan daiteke. Era berean, energia-autosufizientzia, komunitatearen ahalduntzea eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea sustatuko luke (Mugarik Gabeko Ingeniaritza / Ingeniería Sin Fronteras).*



La Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava, con el apoyo de otras entidades y personas colaboradoras, llevó a cabo a mediados de 2022 una iniciativa de participación comunitaria para idear, diseñar y pintar un mural con la que denunciar el expolio ilegal de los recursos naturales del Sahara Occidental y reivindicar la voluntad del pueblo saharauí por hacer efectiva su soberanía -permanente e incondicional- sobre los recursos naturales de su territorio.

Este proceso de creación artística realizado en Vitoria-Gasteiz (Euskadi) tenía como objetivo generar de una conciencia crítica entre la ciudadanía visibilizando los efectos que provoca en la población saharauí un conflicto que se prolonga por más de 46 años, así como las causas que subyacen a ese conflicto y que impiden su solución.

## matxino artean en rebeldía



En una segunda fase, parte de este mural fue trasladado a la wilaya de Auserd en los campamentos de población refugiada saharauí en Tindouf (Argelia) generando lazos entre personas y entidades de ambos territorios con un mismo propósito.

Web del proyecto:

<https://artecontraelexpolio.saharaelkartea.org>.

